



LITERATURA UNIBERTSALA

ANTZINAROTIK BARROKORA





MARIAN BILBAO ELORDUI

AURKIBIDEA

Atariko hitzak.....	3
Sarrera.....	7
1. unitate didaktikoa: Antzinaroa.....	10
Lehenengo zibilizazioak	10
❖ Egipto.....	10
❖ Mesopotamia	11
Hebrear literatura: Biblia	16
Antzinaro klasikoa	17
❖ Greziako poema epikoak.....	18
❖ Greziako tragedia.....	21
❖ Erromako poema epikoak.....	22
❖ Erromako prosa	23
Euskal mitologia: «Izena duenak izana du».....	25
2. unitate didaktikoa: Erdi Aroko literatura	30
Epika	31
Lirika	33
Aurre-errenazimentua.....	37
Lirika	38
Narrazioa.....	40
3. unitate didaktikoa: Errenazimentutik Barrokora	43
Prosa	44
Antzerkia	46
Bibliografia.....	52

Atariko hitzak

Ikasle hori:

Material hau prestatu dut Batxilergoko lehen mailako Literatura Unibertsala hautazko irakasgaiari eransteko osagarri gisa.

Literatura unibertsalaren ezagutzak, bilakaera, mugimenduak eta abar ondo azalduta dauzkazu Erein argitaletxeko *Literatura Unibertsala. Batxilergoa I* (LU-B1) ikasliburuan. LU-B1ek dakarren testu-antologia ere egokia duzu. Hortaz, esku artean daukazu dokumentuan, batzuetan, testu-antologia horretaz baliatuz, zenbait jarduera edota galdera sorta aurkituko dituzu; besteetan, aldiz, jarduerak eta galderak neuk proposatutako beste testu bati erantsita topatuko dituzu. Bestalde, garairik garai zeure burua hobeto kokatzeko, sarrera teorikoa izango duzu.

Zehaztu dezagun: ikasmaterial honen ardatza irakurgaiak izango dira. Haien analisia egingo dugu; konparazio-lanak; zer testuinguru historiko, sozial eta kulturaletan sortu ziren argitzeko saiioak...

Materiala, beraz, ugaria da, eta, horregatik, ez dago eskaintzen dizudan guztia zertan erabili, gehiegi izango bailitzateke, luzatu egingo baikinateke gure zereginetan. Zer egin, zer ez egin, irakasleari dagokio. Harexen esku gelditzen da zer aukeratu, beraren irizpidearen eta gustuen arabera, betiere ikasleen ezaugarriak aintzat hartuta.

Era berean, material honen helburua da literatura unibertsalaren aro eta mugimendu nagusien azterketa kronologikoa egitea, garai bakoitzeko egile eta lanik garrantzitsuenak kontuan hartuta —honela, ikusiko dugu gai berberak erabili direla behin eta berriz—; bai eta formek historian izan duten bilakaera ere; edota zer-nolako harremana izan duten beste kultura-adierazpenekin, dela artearekin, dela musikarekin...

Nire iritzian, literaturaren irakaskuntza huts-hutsean autorearengan eta haren testuinguru historikoan oinarritu beharrean —orain arte, tamalez, horixe egin da—, literatura-testuetan eurretan oinarritu beharko genuke arloaren helburua. Horrela, zuk, ikasle horrek, askoz gehiago ikasiko zenuke. Literatura-testuak, baina, zertarako?

1. Batetik, irakurtzeaz gozatzeko, ohitura moduan, ikus dezazun literatura ezagueren iturri aberatsa dela, eta aspaldiko zein hurbileko pertsonekin komunikatzeko tresna bizia ere badela.
2. Bestetik, literatura-gaitasuna zeureganatzeko: apurka-apurka ezagutuko dituzu literatura-generoak, baliabide erretorikoak, kultura-tradizioa... Izan ere, idazle bat bere garaian kokatzea edo metafora bat identifikatzea baliagarria egingo zaizu mezu literarioa ulertzen laguntzen dizun heinean, bai eta informazioa jasotzeko eta ahoz zein idatziz adierazteko trebetasunak garatzen laguntzen badizu ere.

Literatura-gaitasuna pertzepzio-, komunikazio- eta sentsibilitate-gaitasuna da. Hori guztia eskuratzeko eta garatzeko, ezinbestekoa da ingurua, hark eragiten duena. Baina, literatura ikaslearengana hurbildu nahi badugu —alegia, zuregana—, irakurtzea indartu beharko dugu. Horrek lagunduko dizu beharrezko trebetasunak eta baliabideak jorratzen, literaturarekin harreman naturala izan dezazun.

Literatura-gaitasuna testuak ulertzea ez ezik, haren ezaugarriak ezagutzea eta testu-irakurle arteko harremana ere bada. Hortaz, nola lortuko dugu zu, ikasle hori, literatura-testura hurbiltzea? Testuaren garrantzia eta haren ezaugarri literarioak ulertuta, bai eta testu ez-literarioetatik (funtzionalak) bereizten dituen teknikak ezagututa ere. Azkenik, haren balio esanguratsua eta estetikoa aintzat hartuta. Bestalde, literatura-gaitasuna lortze aldera, lagundu nahi dizut adierazteko trebetasunak garatzen, bizipenak eta sentimenduak aditzera emateko aukeran dituzun baliabide estilistiko bidez. Beraz, literatura-gaitasuna lortzea ez da besterik haxe baino: hizkuntza-gaitasuna eta heldutasuna eskuratzeko.

Orduan, zer informazio helarazi literatura-gaitasuna garatzeko?

Idazleei, korronteei eta garaiei buruzko informazio-kopurua ezin da inoiz irakurtzeari ematen zaion denbora eta energia baino handiagoa izan. Hau da, tradizio literarioak ezin du literatura bera ordezkatu, ezta baliabideen jabetzea ere, ze, testu literarioen ulermen sakona eta gogoetatsua garatzeko, hirurak dira beharrezkoak: bai tradizio literarioa, bai baliabideak, bai irakurtzeko gaitasuna.

Literatura-obra baten historia-, ekonomia- eta giza egoera ezagutzea garrantzitsua da horretan sakontzeko. Dena den, irakurtzeko eta horretaz gozatzeko, ez da ezinbestekoa, nire iritzian.

Orduan, zertarako ematen dugu irakasleok literaturaz kanpoko informazioa? Bada, kultura-tradizioa ezagutarazteko, testuak eta errealitatea interpretatzeko erreferenteak aurkituko baitituzu bertan. Izan ere, herriren bateko kideak gara denok, eta herriek historia dute, iragana, erroak, eta literatura aurrekoen lanetan oinarrituz sortu da beti; hau da, tradizioan oinarrituz.

Horregatik, ezinbestekoa deritzot honako honi: autoreak, haien lanak eta irakurleak tradizio literario zehatz bati dagozkiola erakusten duten ezagutzetan indarra jartzeari; hainbat literatura-testu edo -genero erabiltzeari; literaturak arte bilakatzeko erabiltzen dituen teknikak eta baliabideak lantzeari.

Ez hori bakarrik, ez genuke ahaztu behar komeni dela zenbait garaitako edukien arteko lotura azpimarratzea, nahiz eta erreferente batzuk urrunekoak izan. Ez dute, bada, loturarik Ulisesek eta Indiana Jonesek?

Beraz, ondo pentsatu behar da —eta balioetsi— zerk lagunduko lizukeen irakurketan murgiltzen eta literatura-gaitasuna eskuratzen. Erabiliko ditugun datu (material) horiek literatura-lana ulertzeko elementu esanguratsuak eduki ditzatela, horixe izan dut nik kontuan. Izan ere, ezagutuko ditugun obrak garai jakin batzuetan sortutakoak dira, korrante bati edo besteri jarraituz eta idazle batek helburu batekin egindakoa; gainera, sarritan aspaldiko kultura-erreferenteak dituen giza talde bati zuzenduta daude.

Lana zenbat eta urrunago izan denboran eta espazioan, orduan eta zailagoa da ulertzen, horren inguruko ezagutzak urriagoak dira eta. Horregatik uste dut komenigarria dela batzuetan egokitzapen gaurkotuetara jotzea, edota olerki kantatuetara, filmetara, antzerkira... Halako proposamenak ere egingo dizkizut lan honetan.

Bestalde, ez da komeni literaturaren forma berriak saihestea, badakit-eta horiek hurbilak izango zaizkizuna. Denek egiten dute bat mezua edo komunikazio-helburua lortzeko moduan, hizkuntzaren erabilera estetikoan, alegia. Hortxe dauzkagu, adibidez, zinea —testu idatzia (gidoia) abiapuntutzat hartuta, literaturari dagozkion teknikak eta baliabideak garatzen ditu—, saiakera, kankak, komikiak, publizitate-testuak...

Horrela, literatura-lanarekin hartu-emanen egongo zara, eta, testuz testu nortasuna pixkanaka eraikita, gai izango zara kulturen era eraginkorrean parte hartzeko.

Bestalde, garrantzitsua deritzot aukeratutako testuetan teknika estetikoen eta ezaugarri formalen garrantziaz ohartarazteari. Jabetu behar duzu literaturaren edukia bezain inportantea dela egileak nola sortzen duen, eta baita hartzaileak mezua nola bereganatzen duen ere. Beraz, funtzio estetikoa da literaturan nagusi, nahiz eta bakarra ez izan.

Horrez gain, jakin behar duzu literatura-sormenaren inguruan beste faktore batzuk ere badaudela:

1. Autoreak: giza eta kultura-giro bateko kidea da, eta mundu-ikuskerak eta komunikatzeko intentzio jakinak ditu.
2. Mitoak eta kultura-erreferenteak: kultura bakoitzeko giza ondare baliotsuak.
3. Hartzaileak: mezu literarioaren jasotzailea, dela taldea, dela irakurle bakarra.
4. Obraren edukia: fikziozkoa eta landua.
5. Hizkuntza: hizkuntza literarioaren ezaugarri nagusia da hainbat ulermen-maila dituela (esanahi-aniztasuna).

Laburbilduz, helburuak dira era eraginkorrean irakurtzea, adierazteko gaitasuna hobetzea, literatura-testuak lantzea eta sormena bultzatzea. On degizula!

Sarrera

Literatura ikuspegi unibertsaletik aztertuz gero, argi dago gizakia ez dela inoiz isolatuta bizi izan, ez lehen, ez orain; izan ere, nahiz eta aro bakoitzak ezaugarri jakin batzuk izan, garai guztiek partekatzen dute literatura-testuak ekoizteko beharra eta sentimendua.

Unibertsaltasuna osotasunean aztertzea ezinezkoa denez, guk Mendebaldeko literatura hartuko dugu aztergai, eta, noizean behin, horretan eragina izan dutenak, hala nola islamiarra edo Ekialdekoa.

Zein da, baina, literatura sortzeko arrazoia? Barne-kezkei erantzuna topatzeko premia. Hari horri tiraka, gaika azter dezakegu literaturaren bilakaera, autore, lurralde eta garaien arabera.

Giza kondizioaren gaineko ardura honako gai hauetan dakusagu:

1. Epika: gerretako heroien eta zaldunen ekintza gogoangarriak.
2. Ongia/gaizkia: gai moralak.
3. Erljioa: fedearen, heriotzaren eta minaren muinera iristeko ahalegina.
4. Maitasuna: idealizatu, erreala, seme-alabenganakoa, pasiozkoa...
5. Gizartea: giza taldearen ezaugarriak eta lekuak, errealak zein fikziozkoak, eredugarriak zein baztertzeak.

Kronologia kontuan hartuta, hauxe dakusagu:

K.a. 3000. urtearen inguruan, sumertarrek asmatutako idazkera agertu zen Mesopotamian: idazkera kuneiformea. Dena den, jakina da bazela literaturarik hori baino lehen. Are gehiago, idatzia izan baino lehen, ahozkoa izan zen literatura; horrexegatik ez da askorik heldu gure artera. Bestalde, aurkitu diren testu guztiak ez dira literatura; adibidez, horien artean badaude ereserki erlijiosoak, lege-kodeak (*Hamurabiren kodea*) eta beste.

Gilgameshen poema dugu lehenengo testu literarioa, K.a. 2000. urte inguruan idatzia, idazkera kuneiformea erabilita. Testu horrek antzinako elezaharrea eta mitoan du sorburua.

Geroago, Mesopotamian ez ezik, Egipton, Asia Txikian, Indian, Palestinan eta Txinan ere loratu zen literatura-sorkuntza. Ondoren, toki horietatik mundu zabalera hedatu zen, gizakiaren beharren eta sentimenduen eramaile gisa.

LEHENENGO TESTU IDATZIEN GUTXI GORABEHERAKO DATAK	LITERATURA
K.a. 3000. urtea	Mesopotamiarra
K.a. 2700. urtea	Egiptoarra
K.a. 1500. urtea	Indiakoa (sanskritoz)
K.a. 1200. urtea	Hebrear-aramearra
K.a. 900. urtea	Antzinako Greziakoa
K.a. 700. urtea	Txinatarra
K.a. 700. urtea	Pertsiarra
K.a. 300. urtea	Erromatarra

Ideen aniztasunaz jabetzeko, ikus dezagun zer ezaugarri dagozkion garai bakoitzari.

GARAI HISTORIKOA	GARAI LITERARIOA	GARAICO EZAUGARRIAK
Antzinaroa (K.o. V. mendera arte)	Antzinaroko literatura (V. mendera arte)	Munduaren eta gizakiaren sekretuak azaltzea
Erdi Aroa (V.-XV. m.)	Erdi Aroko literatura (XV. mendera arte)	
Aro Modernoa (XV.-XVIII. m.)	Errenazimentuko literatura (XVI. mendea)	Maitasuna, morala eta utopia
	Barrokoko literatura (XVII. mendea)	Morala, idealen krisia
	Ilustrazioko literatura (XVIII. mendea)	Zoriontasuna eta arrazoia bilatzea
Aro Garaikidea (XIX.-XXI. m.)	Literatura erromantikoa (XIX. mendearen lehen erdia)	Errebeldia eta indibidualismoa
	Literatura errealista (XIX. mendearen bigarren erdia)	Gizartea eta haren arazoak
	Literatura garaikidea (XX. eta XXI. mendeak)	Erlijioa, existentzia, gizartea eta literatura

Beraz, hasieran esan dugun bezala, literatura kultura guztietan gertatu den fenomeno dugu; hau da, unibertsala da, eta helburu hauexek ditu:

1. Hartzailea entretenitzea.
2. Gizartearen bilakaerarako tresna den heinean, giza eta politika-arazoak salatzea.
3. Irakurleak bat egitea irakurtzen ari den horrekin, pertsonaiekin, haien sentimenduekin, egoerekin...
4. Balioak transmititzea.

1. unitate didaktikoa

Antzinaroa

Antzinaroa deritzo lehenengo zibilizazioen sorreratik (K.a. 3500. urte ingurua) Mendebaldeko Erromatar Inperioaren gainbehera arteko epeari (K.o. 476. urtea).


Garai hartako literaturan, lotura estua zegoen testuen eta gizartearen artean; izan ere, gizakiak galderak egiten zizkion bere buruari, eta horiei erantzuten saiatzen zen literatura. Bada, literaturaren baitan, berebiziko garrantzia zuten erlijioak eta mitoek. Garai hartakoak dira *Hilen liburua*, *Gilgameshen poema*, *Panchatantra* eta beste. Ukaezina da obra horiek literatura unibertsalean izan duten eragina, letren artearen norabidea eta historia baldintzatu baitituzte.

Lehenengo zibilizazioak

❖ Egipto

Biziaren beste aldean txalupa lortzeko formula

—Nola dut izena? Esan! —agindu zuen txalupak.



—«Gaueko txalupa ekar ziezaion Ra jainkoak labanaz moztu zuen Isisen hanka», horixe da zure izena.

—Nola dut izena? Esan! —agindu zuen txalupazainak.

—«Atsedean hartzen duena», horixe da zure izena.

(...)

—Esan nire izena —agindu zuen ibaiak—, nire ur gainean nabigatu nahi baduzu!

—«Begiratzen dutenak», horixe da zure izena.

(...)

—Agur, zuek, izaki perfektuok, esperientzien jabe zareten jainko betierekoak!

Hilen liburua

Jarduerak

1. Zein da Osirisen mitoa? Zer garrantzi izan zuen Antzinako Egipton? Zergatik?
2. Zein da testuaren helburua, izenburuaren arabera?
3. Literarioa da testua huts-hutsean?
4. Antzinako kulturetan ohikoa den elementu bat aipatzen da: txalupa, zeinak bizirik daudenen mundua eta hilik daudenena komunikatzen dituen. Beste zibilizazio batzuetan ere erabiltzen da. Zeinetan?
5. Zein baliabide linguistiko agertzen da behin eta berriz?
6. Arakatu Egiptoko eta Mesopotamiako idazkerak. Nola lortu zuten idazkera kuneiformea argitzea? Zer garrantzi izan zuen Rosetta harria aurkitzeak?
7. Egiptoko jainkoek irudi grafikoa dute. Aukeratu horietatik lau, azaldu bakoitzaren betebeharra, eta adierazi nola irudikatzen den.

❖ Mesopotamia

Gilgamesh eta Enkidu

Erregeen artean gorena, ahaltsua eta inor baino garaiagoa, bortitza, bikaina, zezen basatia, garaitu gabeko buruzagia, batailan lehena, haren soldaduek gurtua — «gotorleku, herriaren babesle, babes guztiak hondatzen dituen uholde oldartsua», zioten—, bi heren jainkotiar eta bat gizatiar, jainko bihurtu zen Lugalbanda erregearen semea eta Nisun jainkosarena, mendietako bideak ireki zituen, mendi-magaletan putzuak aitzurtu zituen, itsasoaren ur zabalak zeharkatu zituen, ekialderantz nabigatu zuen, betiko bizitzaren bila munduaren mugaldeetaraino bidaiatu zuen, eta Utnapishtim aurkitu zuenean —Uholde Handitik bizirik atera zen gizona eta hilezkortasuna lortu zuena—, antzinako errito ahaztuak berreskuratu zituen: uholdeak desegin zituen tenpluak berriz eraikita,



herriaren eta lur sakratuaren onerako irudiak eta sakramentuak berriztuta. Badu parekorik Gilgameshek? Badago erregerik halako beldurra sortu duenik? Nork esan ditzake berba hauek?: «Neu naiz erregeetan errege, gizaki guztien artean gorena».

Sorkuntzaren amak, Aruru jainkosak, haren gorputza modelatu zuen eta gizonik indartsuena egin zuen: itzela, ederra, dirdiratsua, perfektua.

Hiria haren onibarra da, bertan erakusten du harrokeria, burua tente, bertako biztanleak zapaltzen ditu, zezen basatia bailitzan. Erregea da. Zerbait bururatu, eta egin egiten du: aitari semea indarrez kentzen dio zapaltzeko, amari alaba bere egiteko, eta gerlariaren alaba eta mutil gaztearen bikotekidea ere bere

egiten ditu. Inor ez da ausartzen aurre egiten.



Baina Uruk herriak laguntza eskatzeko deiadar egin zuen, eta entzun egin zituzten haren kexuak; hunkitu egin ziren jainkoak, ez baitira bihozgabeak. Anurengana, Uruk sakratuaren erreinuko babesle eta ororen aitarenagana, joan ziren jainkoak, eta herriaren izenean honela hitz egin zioten: «Jainko jauna, Gilgamesh prestua eta bikaina bada ere, muga guztiak gaingitu ditu. Herria haren tiranokeria jasaten ari da; herria salatzen ari da aitari indarrez kentzen diola semea zapaltzeko, amari alaba bere egiteko, eta gerlariaren alaba eta mutil gaztearen bikotekidea ere bere egiten dituela. Inor ez da ausartzen aurre egiten. Egizu, arren, zer edo zer, aita gurea.

Azkar, negar lazgarriez herriak gainezka egin baino lehen».

Anuk entzun eta baietz esan zuen. Orduan jainkosari deitu zion, sorkuntzaren amari, eta hau esan zion: «Aruru! Zeuk sortu zenuen gizona. Orain sortu Gilgameshen parekoa, indarrez eta ausardiaz antzekoa, haren bihotz asaldatua bezalakoxea duen gizona. Sortu beste heroi bat, eta egin dezatela elkarren kontra Uruk herriak bakea eduki dezan.

Aruruk, hori entzundakoan, begiak itxi eta Anuk agindutakoa irudikatu zuen buruan. Eskuak busti, haien artean lokatza hartu, basoan bota, oratu, egindako irudiaren arabera modelatu, eta gizon bati eman zion forma, gerlari bati, heroi bati: Enkiduri. Enkidu adoretsua, gerraren jainko Nunurta bezain ahaltsua eta krudela. Gorputza biloz estalita zeukan, buruko ilea oparo hazten zitzaion, emakume batena bezain luze, gerriraino. Noraezean ibili zen mendian, biluzik, gizakien hirietatik urrun; gazelekin bazkatu zen, eta, egarria asetzeko, ur gardena edan zuen urmaeletatik, orein eta antilopeen ondoan belauniko jarrita.

Gilgameshen poema

Jarduerak


1. Bilatu Interneten edo beste nonbait *Gilgameshen* poemaren laburpena.
2. Testuan irakurritakoa kontuan hartuta, identifikatu jainko-jainkosak, eta deskribatu beste bi pertsonaia nagusiak.
3. Irakurgaia *Gilgameshen* poemaren hasiera da. Hori kontuan hartuta, zein da lehenengo paragrafoaren funtzioa? Testuaren edukiari erreparatuta, zenbat atal bereiziko zenituzke?

4. Erantzun:
 - 4.1. Zer dela eta sortu zen Enkidu?
 - 4.2. Bibliako zer pasarte gogorarazten dizu?
5. Poemak aurrera egin ahala, Gilgameshen eta Enkiduren arteko harremana aldatu egin da; hau da, hasierako gorrotoa benetako adiskidetasun bilakatu da.
 - 5.1. Zer esan nahi du elkartasun horrek?
 - 5.2. Zer esanahi dauka adiskidetasun horrek alde sinbolikotik?
6. Espazioari dagokionez, pertsonaiak ez daude leku berean.
 - 6.1. Non dago Gilgamesh? Eta Enkidu?
 - 6.2. Lekuak badu eraginik pertsonaien izaeran?
7. Adierazteko era dela eta, zer esango zenuke syntaxiaz? Erabiltzen diren formak errepikakorrak dira? Jarri adibideak. Zein da baliabide horren helburua?
8. Zein da baliabiderik erabiliena protagonisten nolakotasunak adierazteko?
9. Ahozkoitasunaren garrantzia funtsezkoa da antzinako zibilizazioetako tradizioaren, historiaren, mitoaren eta elezaharren transmisioan. Hori ikusteko, egin testuak dituen ahozko ezaugarrien zerrenda: errepikapenak, paralelismoak, deskribapenak...
10. Elkarriketak ere badaude. Nola, zehar estiloan ala zuzenean? Zer tonu darabil?



Gilgameshen poemaren ekarpena handik aurrera erabili ziren gai eta egituretan islatzen da. Besteak beste:

- Uholde Handia aipatu zuen.
- Herkulesek eta beste pertsonaia batzuek bezala, Gilgameshek proba batzuk gainditu behar izan zituen.
- Jainkoen eta gizakien arteko borrokak mitologia askotan agertu ziren, hala nola mitologia grekolatindarrean, Biblian eta Erdi Aroko literaturan.
- Gilgameshek bere esentzia ezagutu eta onartzeko egin behar izan zuen bidaia Odisean, XX. mendeko Ipar Amerikako *beat* literaturan eta abarretan errepikatzen da.
- Enkidu, animalia-egoeratik urrundu, eta gizaki zibilizatua bilakatu zen. Horren harira, aipatzekoa da literaturan behin eta berriz errepikatu dela giza eta animalia-ezaugarriei buruzko hausnarketa.
- Gizakiok hilkorrak gara. Ideia hori Erdi Aroan hasi eta XXI. mendera arte heldu zaigu.



Hona hemen, gure gaiari lotuta, Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak idatzitako poema:

Gilgamesh bidaztia

Zergatik zoaz nora gabe basamortuan barrena?
 Ez da eremuotan lilirik, Gilgamesh,
 iluntzerako ezkutatuak dira xoriak oro
 eta ustelduak zintzilik diren sagarrak ere.
 Hemen, ene gorputza soilik, lurpean, sustrai artean
 harrak elikatzeke ene soin behiala lerdena,
 bihotzak argitzen zituen gorputza, xahutua.
 Bai, Gilgamesh, krudela da heriotza, etortzer,
 baina helduren zaizu balbea eta eskuarki
 emanen dauzkiozu oroitzapenak oro, irriak, malkoak,
 eta harek besarkada amultsuz harturen dauzkizu.
 Bai, Gilgamesh, galdu eginen duzu bizitzaren landarea,
 oi itsas sakoneko elorria, sugeak ebatsiren dautzu
 larru zaharra zeuri utzirik, larru zaharra eta
 nigar latsak zure begietan. Baina zergatik nigar?
 Ez al da itzaltzen halaber argia zokoetan?
 Eraikitzen al du inork betirako etxerik?
 Begira itzazu otalorak ere, Gilgamesh. Ez al du neskatila
 loak hartuak, iadanik, hil berriaren antza?



Joseba Sarrionandia

Izuen gordelekuetan barrena, 1981

Jarduerak

1. Zer egin zaizu deigarri? Azpimarratu deigarri egin zaizun hitzen bat edo pasarteren bat. Zer iradokitzen dizu?
2. Esan daiteke Sarrionandiak literatura-tradizioa ondo ezagutzen duela. Zer genero aukeratu du? Zergatik? Zein da idazlearen egoera animikoa, zure iritzian?
3. Zer dakizu idazleari buruz? Lotu berari benetan gertatutakoak eta olerkiaren edukia.
4. Zergatik erabili du Gilgamesh pertsonaia olerkian? Zer sentimendu adierazteko? Nola zuzentzen da berarengana?
5. Zein da gaia? Unibertsala da?

6. Konparatu irakurri duzun *Gilgameshen* poemako testua eta Sarrionandiaren olerkia, erabilitako generoa, hizkuntza, erregistroa eta estiloa kontuan hartuta.
7. Zer esan nahi du azken galderak? Baliabiderik erabiltzen du Sarrionandiak?
8. Zer iruditu zaizu olerkia? Zer sentimendu piztu dizu?

Jarduerak

1. Azaldu eskema eran ikasi ditugun lau zibilizazioen ezaugarri estilistiko eta tematiko nagusiak:



Egiptoko literatura		
Mesopotamia		
India		
Txina		

2. Artearen eta literaturaren arteko lotura
 - 2.1. Bilatu asiriarren erliebeak. Gerrazaleak izan ziren? Non ikusten da?
 - 2.2. Aztertu *Gilgameshen* poema. Nola islatzen dira indarra eta nagusitasuna?



3. Testuartekotasuna
 - 3.1. Badago kidetasunik errege asiriarraren, Gilgameshen, literatura-tradizioko heroi epikoen eta komikietako heroien artean? Heroien zer ezaugarri heldu zaizkigu gaur arte? Zer da jokabide heroikoa? Zer alde dago lehengo literatura-tradizioko heroien eta gaur egungoen artean?
 - 3.2. Gilgameshen epopeia eta Erdi Aroko epika. Erreparatu heroi epikoen bilakaerari, eta aztertu nolako eginkizunetan parte hartu duten, haien eragina esanguratsua izan baita herrien identitate-ezaugarriak ezagutzeko.

Hebrear literatura: Biblia


Biblia kristautasunaren eta judaismoaren liburu sakratua ez ezik, kultura unibertsaleko libururik inportanteenetakoa ere bada. Bibliako pertsonaiek, gaiek... berebiziko eragina izan dute, eta gaur egun oraindik ere badute, literaturan eta artean orokorrean. Mila urteko tartean idatzi zen (K.a. 900. urtean hasi eta K.o. 100. urtean amaitu zen), eta bi atal ditu: Itun Zaharra (hebreeraz eta arameeraz idatzia) eta Itun Berria (grekoz idatzia). Testuak askotarikoak dira: epikoak, lirikoak, moralak...

Jarduerak


1. "Sansonek eta Dalila" testua. LU-B1, 17. orrialdea.

Entzun Camille Saint-Seëns-ek (1835-1921) egindako opera:
<https://www.youtube.com/watch?v=9piRiiZ0C4Q>

- 1.1. Zure ustez, mitoan oinarrituta dago "Sansonek eta Dalila" testua? Bilatu informazioa eta azaldu. Zer akats egin du Sansonek?
- 1.2. Zer berezitasun dute hebrear zibilizazioak eta kristautasunak, antzinako zibilizazioek ez dutena?
- 1.3. Zein pertsonaia mitikoren antza du Sansonek? Beraz, badu loturarik beste kulturaren batekin?
- 1.4. Zer gertatu da? Jainkoak parte hartu du? Antzeman duzu mitoaren ezaugarririk?
- 1.5. Testua literarioa ala erlijiosoa da?



Bibliaren beste pasarte bat R. Strauss-ek (1864-1949) musikatu zuen: *Salome*.
 Entzun: <https://www.youtube.com/watch?v=IWLgzNWxs1Q>



Oscar Wildek idatzitako obran oinarrituta dago opera, eta Bibliako pasarte baten bertsioa da, K.o. 30. urtean gertatutakoa. Bertan, Herodesen gorte dekadentea erakutsi zuen Straussek: Joan *Batailatzailearen* gogortasuna eta Salomereren moral eza kontrajarri zituen.

Straussek irudikaturiko dantzaren sentsualitateak urruneko egintza paganoetara garamatza: Salome gaiztoak Joan *Batailatzailearen* burua eskatu zion aitaordeari, Herodesi. Trukean dantza zoroa eskaini zion: zazpi beloena. Belook banan-banan erori zitzaizkion Salomeri, biluzik geratu arte.

Antzinaro klasikoa

Zein da Mendebaldeko literaturaren oinarria? Greziako eta Erromako literaturak. Literatura grekolatindarreko gaiek eta pertsonaiek elezahar eta mitoetan dute oinarria gehienbat; hala ere, gaur arte heldu zaizkigu, eta mundu guztian zehar zabaltzen dira. Hain dira garrantzi handikoak, non haiek gabe ezinezkoa litzatekeen gure oraina —literarioa eta artistikoa— ulertzea.

Mitoak narrazioak dira. Antzinako grekoek elezahar liluragarrien bidez azaltzen zuten mundua. Istorio zahar horietan gertakari gogoangarriak kontatzen zituzten, era ederrean; jaunko ahalguztidunei buruz, heroi adoretuei buruz eta izaera ahularen erruz zorigaitzean erortzen ziren pertsonen buruz hitz egiten zuten. Lotura estua zuten erlijioarekin, mundua esplikatzen azalpen «zientifikoa» ematen zuten, balioak aldarrikatzen, eta gizakiaren beldurrak eta nahiak azaltzen zituzten.

Urteak joan urteak etorri, espiritualitatea desagertuz joan zen, eta sinboloak ordezkatu zuen, betiere gizakiaren bizi-esperientzia txertatzeko. Gizakiak munduan bete behar lukeen funtzioa azaltzeko balio zuen sinboloak. Beraz, mitoa eta elezaharra literatura bilakatu ziren apurka-apurka; hau da, hasierako zentzu historiko-erlijiosoak edertasun poetikoari utzi zion tokia.



Greziarrek lirika, epika eta dramatika generoak landu zituzten. Izan ere, eredu dira horietan. Adibidez, epikan: Homero; dramatikan: Eskilo, Sofokles eta Euripides. Geroago, Erromak Grezia konkistatu zuen, eta haren ondareaz jabetu zen. Orduan, greziarren kultura bereganatu, eta beren moldeetara egokitu zuten, beren mundu-ikuskerara zein testuingurura ekarrita.

hasitako
aurrera

ulertzeko

gaur

Mendebaldeko egoera ulertzeko.



Erromak, Greziak kultura-tradizioa bere egin, eta egin zuen. Are gehiago, latina, zuzenbidea, sekulako monumentuak eta bizitza modu berria ekarri zituen. Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da Grezia eta Erromako ondarea ezagutzea egungo Europako eta

Jarduerak

1. Mitologia klasikoa da epikako eta antzerkiko pertsonaien eta argumentuen iturri. Oinarriak Homerok eta Hesiodok ezarri zituzten K.a. VIII. mendean. Geroago, erromatarrek greziar mitoak bereganatu zituzten, nahiz eta beste izen batzuk eman; adibidez, jainkoei. Osatu taula eta zehaztu jainko bakoitzaren zeregina.

Gero, bilatu artelanak Interneten, eta parekatu dagokien jainkoarekin.



Greziako jainkoak	Erromako jainkoak	Zeregina
Afrodita		
Ares		
Artemisa		
Atena		
Kronos		
Eos		
Dioniso		
Helios		
Hermes		
Hades		
Poseidon		
Zeus		

❖ Greziako poema epikoak

1. Irakurri Homero idazlearen *Odisea* liburuko "Polifemo ziklopea" pasartea. LU-B1, 30. orrialdea.

- 1.1. Azpimarratu testuan aurkitu dituzun jainkoen izenak. Badago gizakien eta jainkoen arteko interakziorik?
- 1.2. Nolakoa da Poseidonen eta Polifemoren arteko harremana? Zein da bata bestearenganako jarrera?
- 1.3. Badakizu ziklopeak eskatutakoa bete zen ala ez?
- 1.4. Ulisesek abilezia handiz hartu zuen izen berezia. Zertarako?
- 1.5. Hizkuntza-baliabideak. Bilatu epiteto epikoren bat eta konparazioak.
2. Polifemo erraldoiak euskal mitologiako pertsonaia batekin du lotura. Norekin? Bilatu antzekotasunak.
3. Orain, irakurri *Ulises, Homeroren Odisearen bertsioa* (Juan Kruz Igerabide). Ea 1.3. galderan erantzundakoarekin loturarik duen.



Penelopek Euriklea inudeari galdetzen dio ea Ulises Itakara itzuli den, azkenean ere.



Penelope esnatzera igo zen emakume zaharra.

—Esnatu, Penelope, alaba. Ikusi heure begiez aspaldidanik itxaroten ari haizena. Ulises etorri dun eta ezkongaiak hil ditin.

Penelopek, esnaturik, honela erantzun zion:

—Inude maitea: jainkoek burua nahastu dizute. Ez niri egin isekarik, badut eta nahikoa samin bestela ere. Horretarako esnatu al nauzu? Ulises Ilion madarikatura joan zenetik, ez nuen gaur bezain lo gozorik egiten. Tira, itzul zaitez megaroira; beste batek hau egin izan balit, errieta egingo nion, baina zuri barkatu egingo dizut, zaharra zarelako.

Eta Eurikleak:

—Benetan, ene alaba, itzuli dela, bada! Denek iraindu duten kanpotar hori dun. Telemakok bazekinan, baina isilik gorde din, gizon harro horiek zigortu ahal izateko.

Penelope pozez bete zen; ohetik jauzi egin, eta emakume zaharra besarkatu zuen, negarrez.

—Esan, inude maite, esan egia osoa; nola iritsi da eta nola zigortu ditu ezkongai lotsagabeak, berak bakar-bakarrik?

Eta Eurikleak:

—Ez dinat ikusi, ez zidaten esan; hilik erortzen zirenen hotsa besterik ez dinat entzun. Gu gelan sarturik egon gaitun, hire semeak deitu didan arte.

Gero megaroian ikusitako sarraskia azaldu zion Eurikleak. Penelopek honela erantzun zion:

—Inude maitea; ez poztu gehiegi. Esan didazuna ez da egia; hilezkorren batek hil ditu ezkongaiak, haien gaiztakeriengatik haserreturik.

- 3.1. Obraren zer atali dagokio? Azaldu horren aurretik eta ondoren gertatutakoa.
- 3.2. Heroiaren gertaerak edo balentriak barik, sentimendu-segida bat uzten da agerian. Sentimenduak dira, beraz, istorio guztien iturburu. Horregatik, heroi handia izan arren, sentimenduen indarrak jartzen du Ulises gizakiaren pare. Zer sentimendu dira?
- 3.3. Testuan, mendekua da gaietako bat. Epikan, ohiko gaia da? Eta Homeroren obran? Jarri adibideak.
- 3.4. Testuan borroka bat dago, Gilgameshen eta Enkiduren artean izan zen antzekoa. Bilatu bi testuen arteko berdintasunak eta desberdintasunak.



Jarduerak

1. Nartzisoren mitoa eredutzat hartuta, aztertu eta zehaztu nork (zer idazlek, zer margolarik...) erabili duen historian zehar gaur arte. Zein fenomenoren azalpena ematen du Nartzisoren mitoak?
2. Irakurri *Prometeo*, *su-lapurra* eta *Pandoraren kutxa* mitoak (ANGELIDOU, Maria: *Greziar mitoak*, Vicens Vives).
 - 2.1. Askotan ala gutxitan agertu dira literaturaren historian? Arakatu Hesiodo, Biblia, Eskilo...
 - 2.2. Azaldu nola adierazi zen Biblian. Zertan dira desberdinak Pandoraren sorrera eta Ebarena?
 - 2.3. Aukeratu bi mitoetako bat, eta egin literatura-gaien zerrenda. Zer esalditatik atera duzu gai bakoitza? Zer ideia egin zaizu deigarri? Azpimarratu duzun ideia bakoitzeko, idatzi bost lerro.
 - 2.4. Gaietako bat itzaropena da. Irakurri *Pitzadura bat elur izoztuan* ipuina (ATXAGA, Bernardo: *Obabakoak*, Erein).
3. Musikak eta pinturak ere birsortu dituzte mitook. Bilatu adibideak.



❖ Greziako tragedia

Greziako tragediak ere hartu zuen Prometeo hizpide. Eskilok, Sofoklesek eta Euripidesek betiko gizon- eta emakume-ereduak taularatu zituzten, bai eta betiko gatazken aurrean jarri ere, hain zen estua mito eta elezaharrekin zuten lotura.

Eskiloren pertsonaiak mitikoak eta urrunak ziren; gizakiaren norabidea gidatzen duen patuaren funtzioa izan zen tragediagile haren ardura. Sofoklesek, ordea, gizakiak ondo uler zezakeen jokaera bat hartzen zuen eredutzat, ona zein txarra; gizakiaren saminaren azterketaz arduratzen zen, bai eta egoera larrietatik libratzeko duintasunaz ere. Pertsonaia horiek Euripidesek hartu zituenean, gu bezalakoxeak ziren, ez jatorri mitikotik eratorriak, eta garaiko gizakiaren sublimazioa edo esajerazioa ziruditen. Hori dela eta, kritikatu egin zuten Euripides, gizakiak zein jainkoak «humanoak» baitziren, garaiko Atenasko errealitatekoak.

Prometeo titanari atzera helduta, esan beharra dago greziar mitologian gizakiaren alde egiten duela, horretarako Zeus, Hefesto eta beste jainkoei iruzur egin behar badie ere. Adibidez, sua eman zion gizakiari Zeusen agindua gaitzetsita. Hori dela eta, babesletzat daukagu, eta, era berean, gizakiaren ausardiaren sinbolotzat, jainkoei dagokiena emateagatik eta eragiteagatik. Ausardiaren sinbolo hau inspirazio-iturri izan da musikarientzat —esate baterako, Liszt, Scriabin edo Beethovenentzat—; pintore eta eskultoreentzat; poeta zein idazleentzat —besteak beste, Lord Byron, Goethe, Calderón de la Barca, Percy B. Shelley eta haren emazte Mary Shelleyrentzat—.



Jarduerak

1. Bilatu Eskiloren *Prometeo kateatua* tragedia eta Hesiodoren berridazketa. Adierazi bi lanen arteko berdintasunak eta desberdintasunak.
2. Esan bezala, Mary Shelleyk *Frankenstein* idatzi zuen. Azpizburua *Prometeo modernoa* da. Zergatik?
3. Irakurri “Antigona” testua. LU-B1, 36. orrialdea.
 - 3.1. Zerk eragin du Kreonteren eta Antigonaren arteko eztabaida?
 - 3.2. Nolakoa da Antigona, zure iritzian?
 - 3.3. Testuan adierazten denaren arabera, zein zen emakumearen egoera Antzinaroko Grezian?
 - 3.4. Nola hil zen Antigona?
 - 3.5. Zein da gaia?



- 3.6. Hiru dira Greziako tragediak, protagonista nagusiak emakumeak dituztenak: *Antigona*, *Elektra* eta *Medea*. Bilatu haiei buruzko informazioa eta laburtu gertatutakoa. Komentatu gelan gaur egun



nolako garrantzia duten.

- 3.7. *Antigona* tragedia Sofoklesek idatzi zuen, eta Tebasiko zikloari dagokio. Ikertu zer kontaktzen duen.

Entzun Carl Orff-en *Antigona* opera.


<https://www.youtube.com/watch?v=sA3wjN2IOIA>

❖ Erromako poema epikoak

Metamorfosiak. Ovidioren *Metamorfosien bertsioa* (Juan Kruz Igerabide)

Lan hari ezin zion inork aitzakiarik jarri, ezta Minervak edo Bekaitzak ere. Mindu zen Minerva, hautsi zuen ehuna, eta jo zuen Arakne anezkaz kopetan hiruzpalau bider. Arakne, orduan, lepoan urkabilur bat ipini eta zintzilikatu egin zen. Errukitu zen Minerva, eta jaso zuen, esanez:

—Jarrai ezan bizirik, baina zintzilik, eta gauza bera gerta bekio hire familiari eta ondorengo guztiei.



Joaterakoan, Hekateko belar-zukuz busti zuen; segituan lurrundu zitzaion ilea Arakneri, eta berdin sudurra eta belarriak; burua txiki-txikia geratu zitzaion, eta orobat gorputza; saihetsean hatz meheak dauzka, hanken ordezt. Sabela du handiena eta handik hari bat botatzen du, eta armiarma gisa ehuntzen ditu aspaldiko ehunak.

- 2.1. Testuan itxura-aldaketa gertatu da. Zein?
- 2.2. Poema epikoa ala lirikoa da? Zergatik?
- 2.3. Orain, irakurri *Arakneren erronka* mitoa (ANGELIDOU, Maria: *Greziar mitoak*, Vicens Vives). Zein da metamorfosiaren arrazoia? Zer jarrera iruditzen zaizu okerrean Arakneren aldetik? Zertan egin du huts? Beraz, esan dezakegu mito morala dela? Zergatik?
- 2.4. Jainkoen helburua munduko ordena iraunaraztea da, kaosa ez nagusitzeko. Baina, pertsonaiek helburu horren kontra egiten dutenean, jainkoak desengainatuta sentitzen dira, eta, ondorioz, zigorrak ezartzen dizkiete gizakiei. Zure ustez, gehiegizkoa izan da Araknek jasan duen zigorra? Nola jokutzen dute jainkoek, Araknek inork ezarritako mugak gainditzen ditutenean?

- 2.5. Konparatu mitoa Velázquez margolariaren *Iruleak* lanarekin. Obra famatua egiteko, Arakneren mitoan oinarritu zen. Adierazi nor diren Arakne eta Atena irudikatzen dituzten



pertsonaiak. Mitoaren zein bi une birsortzen ditu Velázquezek bere margolanean?

❖ Erromako prosa

1. Erromako gizartearen konplexutasuna garaiko idazle askok irudikatu nahi izan zuten, sarritan umorea erabilita. Apuleio da horietako bat. *Urrezko astoa* obran Luzio protagonista, asto bilakatuta, jabez jabe ibili zen gizon-itxura berreskuratu arte. Itxura horretaz baliatuta, Apuleiok gizakiaren zenbait eredu, jokabide, bizio eta bertute erakutsi nahi izan zituen.

- 1.1. Luziok ezin du hitzez adierazi. Erreparatu ezintasun hori dela-eta mintzairari buruz egiten dituen hausnarketei.
- 1.2. Luzioren iritzian, Fortuna jainkosa da beraren egoeraren erruduna. Nolakoa da jainkosa gorputzez eta izaeraz?
- 1.3. Narrazioaren ezaugarriak aztertuko ditugu:
 - 1.3.1. Nolakoa da narratzailea? Zer ikuspuntu dauka?
 - 1.3.2. Zer espazio eta denboratan gertatzen da ekintza? Nolakoa da gertaeren ordena?
 - 1.3.3. Badauka umore-kutsurik testuak? Eta nobela pikareskoarekin antzekotasunik?
 - 1.3.4. Antzematen da garai hartako gizartearen ezaugarririk?

Luziok sorgin ikastun bati hegazti bihurtzeko eskatu dio, jira eta bira ibili ahal izateko maitearen inguruan; baina hegazti barik asto bilakatu da. Itxura horretan mila eta bat zoritxar pairatu ditu: batean, lapur batzuek bahitu dituzte bera eta neska aberats bat. Neskaren senargaiak nahi du lapurrek bidelapurtzat hartzea, eta hala gaizkileentzat fidagarria izan. Horretan dabilela, Luzio arpilatze baten errudun jo du. Luziok, asto izanik, ezin du bere burua aldeztu.



Hura gertakizun horiek kontatzen ari zen bitartean, ni zotinka ari nintzen arima-arimatik, ezen parekatzen nuen garai bateko Luzio hura, bere zori eder eta guzti, gaurko asto errukarriaren egoera tristearekin, eta konturatzen nintzen antzinako jakitun zaharrek zerbaitengatik imajinatu eta irudikatu zutela Fortuna jainkosa itsu eta batere begirik

gabea; izan ere, beti, gaiztoentzat eta doilorrentzat gordetzen ditu bere dohainak, eta inoiz ez ditu aukeratzen gizakiak arrazoi zintzoen arabera, eta, aitzitik, itsu ez izanez gero behintzat, nahiago izaten du urrundik ihes egin behar lioketen haien lagunartea; baina okerrean da gure artean ospea-eta hain era kaskarinean eta okerrean banatzen dituela, ezen gizaki zintzoaren onarpena izateaz harrotzen baita doilorra, eta ohoretsua, aldiz, gaizkiletzat zigortua izaten baita.

Niri zegokidanez, abere bihurtzeraino zigortu ninduen ankerki, mailarik behekoeneko lauhankadun bihurtzeraino; eta gainera, gizonik gupidagabeenari ere nire zoritxarra mingarri eta lazgarri irudituko zitzaiokeen baina, hala ere salatu egiten ninduten ostatu eman zidan neure lagun maite-maiteari lapurreta egin omen niolako. Horrelako gaiztakeria bati guraso-hilketa dei ziezaiokeen edozeinek, lapurreta bainoago. Eta ezin ezer adierazi nire alde, ezta hitz-erdi bat ere, neure errua ukatze aldera. Azkenean, neure aurrean hain gaiztakeria ikaragarriaren salaketa egiten ari zitzaizkidanez, isilik egonez errua aitortzen nuela ez erakusteko, ezinegonak eraginda, “horrelakorik ez nian egin, ez, ez” adierazi nahi izan nuen. Behin eta berriz errepikatu nuen esaldiko lehen hitza ahots azantzatsuaz, baina ezin gainontzekoa esan; lehen silaba horretan gertu nintzen, behin eta berriz “ho, ho” oihukatuz, nahiz neure ezpain zintzilikatuak biribiltzen saiatu. Zertan aritu, ordea, Fortunaren ankerkeria deitoratzen, ez baitzuen lotsarik izan ezta lehen mirabe eta zamari nuen neure zaldi beraren zerbitzarikide eta uztarrilagun egiteko ere?

Luzio Apuleio

Urrezko astoa

Itzulpena: J. K. Igerabide, A. Lertxundi

Ikusi dugun moduan, literatura grekolatindarrak forma eman zion mitologia klasikoko corpusari. Horrez gain, topiko literarioak eratu ziren, geroago Mendebaldeko literaturan hain erabiliak izan direnak. Topiko literarioak literaturan behin eta berriz erabili diren gaiak dira, askotan errepikatzen direnak. Adibidez, Horazioren garaitik gaurdaino iritsi zaigun topikoa da Sarrionandiak itzulitako *Carpe Diem* poema (LU-B1, 43. orrialdea).

Topiko grekolatindarrak Antzinaro klasikoko idazleen lanetatik hartutako hitzez hitzeko zitak dira.

Euskal mitologia: «Izena duenak izana du»

Herri guztiek ezagutu behar dute beren historia nor diren jakiteko. Altxor hori historian, literaturan... dago.

Indoeuropar inbasioak gorabehera, hizkuntzari eta kulturari eutsiz aurrera egin duen herri zaharra dugu Euskal Herria. Bertako sinesmenekin batera mundu mitologiko bat eraiki du, eta euskaldunek beren nortasunari eusteko gaitasun handia erakutsi dute, askotan kanpoko eragina jaso badute ere. Eraginak eragin, Euskal Herriko mitologiak osotasuna du eta berezko ezaugarriak ditu: antzinatasuna, izaera lurtarra, emakumearen nagusitasuna, naturarekiko harremana, izaera baketsua eta ahozko transmisioa.

Euskal mitologia historiaurretik datozen sinesmenek, pertsonaia mitikoek eta elezaharrek osatzen dute.

Zer da mitoa, baina? Gizakiak dituen galderak eta inguruan sortzen zaizkion gertakari ulertezinak argitzeko narrazioak dira. Narrazio horietan gizakiaz gaindiko ahalmenak dituzten jainko edo pertsonaia mitologikoek parte hartzen dute. Bizitzaren misterioak azaltzen dituzte, batetik; fenomeno naturalak esplikatzen dituzte, bestetik. Sinesmen horiek herriaren memorian eta kulturaren errotzen dira, eta mundua ulertzeko modua sortzen da, mundu-ikuskerara berezia.

Euskal kosmologiak lurra du gunea, Aita Barandiaranek ikertu zituen kondaira askoren arabera. Ama Lurra da jainko nagusia, eta Eguzki Amandrea nahiz Ilargi Amandrea harexen baitakoak dira, bertatik, lurretik, irteten eta sartzen baitira. Gizakiak haien sinboloak irudikatzen ditu. Hainbat lekutan, eguzkia mendebaldetik ezkutatzen denean, gaur arte heldu zaizkigun agurrak eskaintzen dizkio jendeak: «Eguzki santu bedeinkatua, zoaz amagana».

Lurra erraldoia da, mugarik ez duen eremu horizontala. Bertan bizi dira euskal mitologiako izakiak, batzuetan animalia-forma hartuta, besteetan gizaki-itxuran.



Mari Lurraren jainkoa da, lurraren eta naturaren pertsonifikazioa, erregina ahalguztiduna. Lur-barnea du bizileku, pertsonaia mitologiko gehienek bezala (Lamia, Tartalo, Herensuge...).

Munduko mitologia askotan, ekaitzak, trumoiak, tximistak eta haizeak zeruan dute jatorria (mitologia indoeuroparra). Euskal pentsaeran, aldiz, natura-fenomeno horiek lurraren barrenetik sortzen dira.

Mari askotan agertzen zaigu ekaitzak sortzen. Euskarak gorde dituen zenbait esamoldetan jainko boteretsu baten ahalmen magikoa nabaritzen da; hau da, badirudi Ama Lurraren edo Mariren eragina dagoela. Adibidez: «euria dakan», «euria ari du». Beraz, hizkuntzan ere utzi du arrastoa euskal mitologiaren ikuspuntu lurtarrak.

Marik bi seme ditu: Atarrabi eta Mikelats. Lehenengoa ontasunaren jeinua da, eta bigarrena txarkeriarena. Gizakiaren jarrera espiritualen norabideak dira biak.

Amaitzeko, euskal mitologian arimadunak eta bizidunak dira naturako elementu guztiak. Hortixe datorkigu esaera zahar ezaguna: «izena duenak izana du».

<http://www.amaroa.com/ezaugarri-nagusiak/ezaugarri-orokorrak>

Koldo Alijostes Bordagaraik sortutako web orriaren helburua zera da, euskal mitologiaren ikuspegi orokorra plazaratzea: euskal mitologiaren ezaugarriak, jainko eta pertsonaiak, elezaharrak... Jose Migel Barandiaranek lan eskerga egin zuen euskal mitologiari buruzko testigantzak jasotzen, eta hark egindako ikerketetan oinarrituta dago webgunea.

Azken ekoizpena (hiru hauetatik, bat egin)

1. Irakurri *Eguzkiloa* mitoa (MARTINEZ DE LEZEA, Toti: *Euskal Herriko leiendak*, Erein).

AHOZKO ATALA

Ahozko aurkezpen baten bidez, kontatu eguzki-lorearen mitoa, eta, bide batez, konparatu greziar mitologia eta euskal mitologia. Horretarako, baliatu greziar mito batez eta eguzki-lorearen mitoaz.

IDATZIZKO ATALA

Aukeratu euskal mito horren elementu bat, eta kontatu idatziz burura datorkizuna (kanporatu barru-barrutik testuak iradokitzen dizuna).

EGUZKILOREA

J. M. Barandiaranek Euskal Mitologiaren Hiztegian esaten duenez, antzinako euskaldunentzat Lurra Eguzkiaren eta Ilargiaren ama zen, eta, horrenbestez, Lurrak ematen zien bizia landareen eta abereen munduari (mundu horretan sartzen zen gizakia ere). Lurretik sortzen zen, eta Lurrera itzultzen zen berriro. Horregatik, hain zuzen, gure arbasoek opariak egiten zizkioten Lurrari, laguntza eskatzeko.



Eguzkia eta Ilargia ahizpak zirela uste zuten —biak emeak, beraz—; uste zuten lurraren errailetan euskaldunen pentsamendua betetzen zuten jeinuak bizi zirela.

Orain dela milaka eta milaka urte, gizonak munduan zehar zabaltzen hasi zirenean, ez zen ez eguzkirik ez ilargirik. Gizonak eta emakumeak ilunpetan bizi zien denak, suzko zezenen, zaldi hegalarien edo herensuge erraldoien itxura hartuta lurraren errailetatik ateratzen ziren mamuek izuturik.

Gizakiek, bada, Lurrari laguntza eskatzea deliberatu zuten, etsimen hartan.

—Amalur, Lur ama —erregutu zioten—, arren eskatzen dizugu, babes gaitzazu hondatu behar gaituzten arriskuetatik.

Lurra lanpeturik zebilen erabat, eta ez zien jaramonik egin gizakiei; haiek, ordea, ez zuten atertzen, eskatu eta eskatu, eta azkenean gogoan hartu zuen eskatzen ziotena.



—Laguntzeko eskatzen didazue, seme-alaba nireak —esan zien—, eta lagunduko dizuet. Izaki argitsu bat sortuko dut, eta Ilargi deituko diozue.

Eta Lurrak Ilargia sortu zuen.

Hasieran izu-izuturik zeuden horrekin gizakiak, eta beren haitzuloetan gordeta, handik irteten ausartzen ez zirela, baina berehala ohitu ziren haren argitan ibiltzen.

Gizakiak bezala, jeinuak eta sorginak ere oso izutu ziren zeruan argizko gauza hura ikusten hasi zirenean, baina haiek ere ohitu egin ziren, eta berehala hasi ziren haiek ere beren leizeetatik irten eta gizakiei erasotzen.

Berriro joan zitzaizkion gizakiak Lurrari erreguka.

—Amalur —esan zioten—, esker guztiak ematen dizkizugu Ilargi amandrea eman diguzulako, baina zerbait indartsuagoren beharra dugu, lurpeko jeinuak erasoka eri baitzaizkigu oraindik.

—Ongi da —erantzun zien Lurrak—, Ilargiak baino ere argi gehiago duen izaki bat sortuko dut. Eguzki deituko diozue. Eguzkiak eguna egingo du, eta Ilargiak gaua.

Eta Lurrak Eguzkia sortu zuen.

Hain zen handia, hain argia eta hain beroa Eguzkia, non oso geldiro ohitu behar izan baitzuten gizakiek haren argitara, baina pozgarria izan zen benetan hura, zeren haren beroari eta haren argiari esker landareak eta zuhaitzak hazten hasi baitziren. Mamuek eta sorginek ezin izan zuten, ordea, egunaren argitasunera ohitu, eta harrezkero gauez baizik ez dira ateratzen.

Berriro joan ziren gizakiak Lurrarengana.

—Amalur —esan zioten—, pozik gaude eta esker onez ama Ilargia eta ama Eguzkia eman dizkiguzulako, baina beste zerbait behar dugu oraindik, zeren, nahiz eta egunez den bitartean arazorik izan ez, gaua

datorrenean, mamuak beren leizeetatik ateratzen dira, eta erasoka hasten baitzaizkigu.

Lurrak abegi onez entzun zituen honetan ere gizakien eskariak.

—Ongi da. Berriro lagunduko dizuet, baina hau izango da azkena. Lore bat sortuko dizuet, guztiz ederra, hain ederra ere, non gaueko mamuek ikusten dutenean Eguzkia bera dela usteko baitute, eta bakean utziko zaituztete.

Eta Lurrak eguzkiaren lorea sortu zuen, *Eguzkilorea*, gaur egunean oraindik gure etxeak mamu gaiztoetatik, sorginetatik, laminetatik, gaixotasun ekarleetatik, ekaitzetatik eta tximistatik babesten dituena.

2. Budismoaren ideia asko hartu ditu zineak filmetara eramateko, hala nola *Star wars*, *Matrix*, *El guerrero pacífico* eta *Pequeño buda* filmek.



AHOZKO ATALA

Zer pertsonaiak edota pasartek dute budismoaren eragina? Zer balio agertzen dira? Azaldu ahoz.

IDATZIZKO ATALA

Deskribatu pertsonaietako batek izandako ametsa kontakizuneko beste pertsonaia bati bidaltzen dion gutun baten bidez.

3. Teknologia berriak erabilita, azaldu ahoz mitologiako gai bat. Horretarako, aukeratu mito hori garatzen duen literatura-testu bat eta bestelako arte-adierazpen bat (pintura, eskultura, musika). Hauxe azaldu behar duzu aurkezpenean:
 - Mitoaren izenburua eta argumentua.
 - Mitoa jasotzen duen literatura-lanaren pasarte bat, egilea eta urtea.
 - Obra guztien izenburuak, egileak eta argitaratze-urtea, eta haien esanahia eta balioa.



Purcell-ek *Dido and Aeneas* opera idatzi zuen 1689an, Virgilioren *Eneidaren* 4. liburuan oinarrituta. Maisulana da.

Honatx "To the hills and the valleys" pasartearen nondik norakoak: Eneas eta haren tropa, Troiatik ihes egin (greziarren kontrako gudaren ondorioz), eta Kartagora heldu ziren. Eneasek Kartagoko Dido erregina alarguna ezagutu, eta berehala maitemindu ziren biak. Entzungo duzun audioa maitasunaren ospakizuna da: bizia, indartsua, garaipen-dantza da.

<https://www.youtube.com/watch?v=A6wCcDea03A>

2. unitate didaktikoa

Erdi Aroko literatura

Erdi Aroko literaturak hainbat forma eta gai jorratu zituen, hamar mendez luzatu baitzen, V.-XV. mendeen bitartean, hain zuzen ere. Europako literaturan feudalismoa, teozentrismoa eta heroi zalduna ageri dira etengabe poema epiko nagusietan —esaterako, *Errolanen kanta*, *Mio Ciden eresia* edo *Nibelungoen kanta* gesta-kantetan— zein lirika jasoan, maitasunak basailutza-ezaugarriak baititu.

K.o. 476. urtean, Mendebaldeko Erromatar Inperioaren gainbehera eta herri barbaroen etorrera (germaniarrek) eta inbasioak izan ziren. Iberiar penintsulan, bisigodoak kokatu ziren; Frantzia, frankoak... Kultura horiek kristautasunera bihurtu ziren, eta horrek Elizari indar handia eman zion. Horrez gain, kulturarako latina hautatu zuten, nahiz eta X. mendetik aurrera hizkuntza erromaniko bilakatu.



XI. mendera arte, monasterioak izan ziren kulturaren gordailuak, eta orduantxe hasi ziren unibertsitateak sortzen: Bolonia eta Oxford, XI. mendean; Paris, XII.lean; Palentzia eta Salamanca, XIII.lean.

XII. mendetik aurrera, nobleen gorte batzuk kulturgune bilakatu ziren. Hala, lirika kultua edo jaso sortu zen Okzitanian (Frantzia): Proventzar lirika edo trobadore poesia.



Zaldunen poema narratiboak ere XII. mendekoak dira, eta gesta-kantekin honako kidesun hau dute: biek dute protagonista zalduna, eta biek erabiltzen dituzte armak.

XIII. eta XIV. mendetik aurrera, estamentuen mailakatzeak ezartzen zituen basailutza-harremanak indargabetu egin ziren, talde sozial berri bat agertzean: burgesia. Burgesiaren sorrerarekin batera, giza eta ekonomia-aldaketak izan ziren, eta, ondorioz, horrek guztiak eragina izan zuen pentsamenduan eta baita sormen artistikoan ere. Horri esker, eredu berriak jarri ziren abian, eta, Italiaren kasuan, etorkizunean Errenazimentua izango zena aldarrikatzen hasi ziren. Aurre-errenazimentua deritzo garai horri, eta Dante, Petrarka eta Boccaccio dira ordezkariak.

1453an Otomandar Inperioak Konstantinopla menderatzeak, inprenta asmatzeak (1455) eta Amerika aurkitzeak (1492) bidea ireki zioten garai berri bati: Aro Modernoari (Errenazimentua). Mundu ikuskera berria agertu zen, eta Errenazimentua sortu.

Epika

Bi literatura epiko mota garatu ziren Erdi Aroan:

1. gesta-kantak
2. zaldunen poema narratiboak




Erdi Aroan borrokak eta gerrak ugaritu egin ziren; hori dela eta, lan askotan zalduna zen protagonista: ausardiaren, ohorearen eta leialtasunaren eredu zen. Beraz, pertsonaia gerlaria zen, dudarik gabe, epopeietako (gesta-kantak) zein zaldunen narrazioetako protagonista nagusia.

XI.-XIII. mendeen bitartean, ahoz aho eraikitako kanta epikoak era idatzian jaso ziren; kasu baterako, *Nibelungoen kanta* (Alemania) eta *Errolanen kanta* (Frantzia).

Jarduerak

1. Irakurri "Sigfridoren heriotza" testua (*Nibelungoen kanta*). Kontuan izan bertsozko originalaren bertsioa dela, prosa eran moldatua. Entzun: https://www.youtube.com/watch?v=zRVdxo_Qfsw
Wagnerrek *Nibelungoaren eraztuna* tetralogia-lana egin zuen. Horretarako, 28 urte behar izan zituen. Hauexek dira lau operak:
 - Rhineko urrea
 - Valkiria
 - Sigfrido
 - Jainkoen gainbehera: *Nibelungoen kanta* oinarrituta egin zuen, eta opera honixe dagokio "Sigfridoren heriotza eta haren hileta-eresia".
- 1.1. Zer nolakotasun zituen zaldunak, testuaren arabera?
- 1.2. Irakurri ikasliburuko laburpena (LU-B1, 57. orrialdea). Zergatik zauritu zuen Hagenek Sigfrido?
- 1.3. Noren alde dago narratzailea, zure iritzian? Zergatik?
- 1.4. Nolakoa da Hagen? Bat egiten du haren izaerak Erdi Aroko zaldunen izaerarekin? Zer harreman du Hagenek Brunildarekin eta Gunther erregearekin?
- 1.5. Heroi epikoaren nolakotasunak azaltzeko, beharrezkoa da ezpata. Testuan, Sigfridorena aipatzen da. Nolako izena du? Bestalde, ezpata ez da Sigfridok duen elementu bakarra. Zer elementutara, zer ezaugarri fisikotara jo da haren erretratua egiteko?



1.6. Badago ahozketasunaren arrastorik (errepikapenik, formularik, azalpenik...)?

Gesta-kanten baliokide kultua zaldunen poema narratiboak dira. Lehenengoak anonimoak ziren; bigarrenak, ordea, ez. Gainera, bertsoz paratuak baziren ere, konplexuagoak ziren eta irakurtzeko eginak. Gortea zen haien testuingurua, aristokraziaren —zaldunen— kodeak bertan jorratzen ziren eta.

Hauexek ziren zaldunen poema narratiboetako heroia baliokideak: dotoretasuna, indar fisikoa, eskuzabaltasuna, ausardia, maitasunari kultua, sakrifizioa... Horrez gain, damarenganako maitasuna ia mistikoa zen. Horregatik, buru-belarri aritzen zen zalduna ekintza gogoangarrietan, perfekzio moralaren lortzeko asmotan. *Ziklo arturikoko* lanak era horretakoak ziren.

Britainiako materia edo *Artur erregearen zikloa* Erdi Aroko narrazio sorta da. Bertsoz zein prosaz idatzitako narrazioak dira, gehienak ingelesez edo frantsesez, eta protagonistak Artur erregea eta gorteko zaldunak (mahai biribileko zaldunak) dira.



Ziklo arturikoko lanak XII. eta XIII. mendeetan garatu zituzten, eta naturaz gaindiko kutsua eta sinbolismo magikoa erantsi zieten narrazioei. Gainera, idazleek maisuki egokitu zuten mitologia zelta gorteko girora eta garaiko gizarte feudalerari. Are gehiago, XIII.

mendetik aurrera zikloa kristautu egin zen:

1. «Galahak zalduna» pertsonaia berria gehitu zutenean (heroi kristaua).
2. Grialaren bilatzeari ekin ziotenean (Artur erregearen zaldunen helburua).



Artur erregearen zikloa garai askotako egileek landu dute. Hona hemen ziklo horri dagozkion obrarik inportanteenak:

1. *Tristan eta Isolda*. Béroulek eta Ingalaterrako Thomasek bertso bati idatzi zuten.
2. *Lais*, Frantziako Mariak idatzia.
3. Chrétien de Troyes frantziarrak XII. mendean garatu zuen zikloa. *Ziklo arturikoan* eta mahai biribileko zaldunengan oinarritu zituen bere bost narrazioak, bertso eran paratuak. Hori dela eta, zaldunen nobelaren

aitatzat hartzen da. Izan ere, Artur erregearen mitoan oinarritu zen unibertso koherentea eraikitzeko, non pertsonaiak ondo definituta dauden. Are gehiago, damarenganako maitasuna eta balentria orekatuta daude, baina batez ere balentria da haren iturri eta eragile. Era berean, orekatuta daude maitasuna eta betebeharra, erreala eta fantastikoa, dama mirestea eta zapalduen laguntzea. Horretantxe datza beraren originaltasuna.

Haren bost lan besterik ez daukagu. Amaiera irekiak dituztenez, beste idazle batzuek era librean moldatu dituzte; adibidez, Juan Kruz Igerabidek (Artur erregearen heriotza).



Jarduerak

1. *Artur erregearen heriotza*. LU-B1, 68. orrialdea.
 - 1.1. Ezagutzen duzu gaur egungo telesailik, literatura- edo zine-generorik, testuarekin loturarik duenik?
 - 1.2. Ezpata eta Artur erregea desagertzeak badu balio mitologikorik?
 - 1.3. Bilatu testuko elementu fantastikoak, eta azaldu zergatik erabiltzen diren.

Lirika

XII. mendean, Proventzako gorte feudalean (Frantziako hego-ekialdea) lirika jasoa sortu zen bertako hizkuntza erromanikoan (okzitanieraz): trobadoreen lirika. Gai nagusia gorte-maitasuna zen.

Jarduerak

1. Bernat Ventadornen olerkia. LU-B1, 70. orrialdea.
 - 1.1. Olerkian, kontrajartze bat dago. Nola dago irudikatuta dama? Eta poeta?
 - 1.2. Zer jarrera du poetak damarekin? Badauka kontsolamendurik?
 - 1.3. Badago parekotasunik poetaren hitzen eta Erdi Aroko gizartearen artean?
 - 1.4. Erreparatu baliabide linguistikoei, eta adierazi lirika jasoa ala herrikoia den.
2. *Hor dakust hegatzabala* olerkia (Bernat de Ventadorn). LU-B1, 60. orrialdea. Entzun: <https://www.youtube.com/watch?v=2l-H6eG2SsY>



- 2.1. Lehenengo ahapaldian, hegatzabalaren irudia erabiltzen du poetak. Zer adierazi nahi du? Zer sentimendu pizten dio poetari?
- 2.2. Nola ikusten du poetak dama? Nolakoa da bien arteko harremana?
- 2.3. Zein da gaia? Gaia justifikatzeko, adierazi zein bertsotan dagoen.
- 2.4. Bilatu gorte-maitasunaren ezaugarriak.
- 2.5. Hizkuntza-baliabideei dagokienez, zein dira erabilienak? Zer lortzeko erabili ditu poetak?
- 2.6. Azpimarratu ezintasuna edo atsekabea adierazteko erabiltzen duen lexikoa.
3. Maitasuna berdina da *Hor dakust hegatzabala* eta *Proventzako alba* olerkietan (LU-B1, 60. orrialdea)?



XIII. mendean, trobadoreen muina aldatu egin zen, Italiara heldu zenean. Ordutik aurrera burgesia izan zen poesiaren sostengu, eta ez feudalismoa. Florentzian, Proventzako lirikari berrikuntzak ezarri zizkion mugimendua sortu zen: dolce stil nuovo. Dante da ordezkarietako bat, eta

Beatriz haren maitea (dama). Poesia berri horrek garaiko proventzar poesia gaingitu zuen, maitasunaren barneratze espirituala eta emakume aingerutarren irudi topikoa zirela bide (*donna angelicata*). Beraz, stilnoviar olerkia feudalismoaren gainbeheraren eraginaren eta sortzen ari zen pentsamolde berriaren ondorioa izan zen.

Azken ekoizpena (hiru hauetatik, bat egin)

1. Idatzi iritzi-testu bat (nahi izanez gero, umorea erabilita), ideia hauek kontuan hartuta:
 Andreas Capellanusek *Maitasun adeitsua* liburuan maitasunaren gainean egindako definizioa irakurri ondoren, azaldu osoa ala osatugabea den. Badu loturarik gaur egungo maitasunaren kontzeptuarekin?
 Zuk nola definituko zenuke?
 Erreparatu idazleak proposatzen dituen arauak, eta hausnartu:
 - 1.1. Nolakoa da idazlearen ametsetako maitalea? Zer nolakotasun izan behar ditu?
 - 1.2. Zer garrantzi du emakumeak arauotan? Badago misoginiarik, zure ustez?
 - 1.3. Maitasunari erantsita, testuan badaude beste emozio eta sentimendu batzuk baikorrak ez direnak. Zeintzuk?
 - 1.4. Orain, idatzi zeuk maitasunaren dekalogoak. Pentsa itzazu edonorentzat baliagarriak izan litezkeen oinarritzko hamar arau, eta idatzi Capellanusek idatzitako eran, baina gaur egungo garaira egokituta. Nahi baduzu, aukeratu bikoterik bat adibidez: Arturo eta Ginebra, Ginebra eta Lanzarote, Tristan eta Iseo, Perzeval eta Blancaflor...

Maitasuna zer den

Maitasuna jaiotzatiko pasioa da, beste sexuko norbaiten edertasuna ikusita pizten dena, eta gehiegizko obsesioa sortzen duena. Beste edozeren gainetik, kidearen besoak desira ditu maitemintzen denak, eta, maitearekin adostuta, maitasunaren arauak bete ahal izango ditu.

Maitasunaren arauak

- I. Ezkonduta egotea ez da aitzakia maite ez izateko.
- II. Zelorik sentitu ezean, ez dago benetako maitasunik.
- III. Ezinezkoa da bi maiterekin konpromisoa izatea.
- IV. Maitasunak berezkoa du haztea zein gutxitzea.
- V. Bikotekidearen borondatearen kontra ezer lortuz gero, hori bai lorpen eskasa.
- VI. Gizonezkoak maite izateko, pubertarotik aurrera izan behar du.
- VII. Bikotekidea hilez gero, bizirik dagoenak bi urteko dolua egin beharko du.
- XV. Maite duen emakumeak begiratzuz gero, maitalea zurbildu egiten da.
- XVI. Emakumearen ezusteko begiradak astindu egiten du maitalearen bihotza.
- XVII. Maitasun berriak zaharraren lekua hartzen du.
- XVIII. Bertuteak —eta ez beste ezerk— egiten du norbait maitagarri.
- XIX. Maitasuna urrituz gero, berehala desagertzen da, eta gutxitan berregiten da.
- XX. Maitemindua beti beldur.
- XXVI. Maitasunak ezin ezer ukatu maitasunari.
- XXX. Maitasuna ezin ase maitalearen laztanekin.
- XXXI. Benetako maitaleak buruan izango du beti maite duen emakumearen irudia.
- XXXII. Ez dago eragozpenik bi gizonek emakume bat maite izateko, ezta bi emakumek gizon bat maite izateko ere.



Andreas Capellanus

Maitasun adeitsua

2. *El Señor de los Anillos* edo *Juego de Tronos* arrakastatsuek ere Erdi Aroko narrazioen eragina dute. Aukeratu bietako bat, eta idatzi obraren iritzi kritikoa, honako puntu hauek kontuan hartuta:

2.1. Britainiako materiako pertsonaiak askotan birsortu dira film, telesail, nobela, komiki eta abarretan. Gaur egun, oraindik ere, hortixe edaten dute sortzaile askok. Esate baterako, Artur erregea edo mahai biribileko zaldunak ikuspegi askotatik —oso desberdinak, gainera— aztertu eta aurkeztu dituzte (pertsonaiengana hurbiltzeko saioak). Eman horren adibideren bat: aipatu bizpahiru lan, eta azaldu bakoitzean eman zaion ikuspegia.



2.2. Azaldu aukeratu duzun obraren argumentuak, gaiak, estiloak eta pertsonaiek zer lotura duten Erdi Aroko zaldunen obrekin. Eman adibideak.

2.3. Dagoeneko ikusi duzu Britainiako materiako pertsonaiek gaurkotasuna eta unibertsaltasuna dutela. Zergatik? Zerk erakartzen gaitu garai hartatik?


3. *Errolanen kanta*. Bilatu *Errolanen kantaren* argumentua, eta azaldu ahoz gelakideei. Zer garrantzi izan zuten euskaldunek guda hartan? Esplikatu.

3.1. Kontakizuna osoagoa izan dadin, argitu puntu hauek:

- Nor izan zen Karlomagno? Nolako inperioa eduki zuen?
- Nor dira Frantziako hamabi pareak, San Lazaro eta San Gabriel arkanjelua?

3.2. Gelan landutakoa kontuan harturik eta ahoz kantatzeko testua dela jakinik, egin iruzkina eta azaldu:

- generoa
- gaiak eta erlijiosotasuna
- epikaren ezaugarriak
- irudi adierazkorren balioa (hiperboleak, epiteto epikoak, harridura-markak...)



Aurre-errenazimentua

XIV. eta XV. mendeetan, Italian, kultura- eta literatura-mugimendu bizia sortu zen. Erdi Aroko ikuspegi teozentrista baztertu, eta gizakia hausnarketa filosofiko eta artistikorako gune bihurtu zuten (antropozentrismoa). Hala, humanismoaren oinarriak ezartzen hasi ziren.

Izan ere, XIV. mendean, Italian, aldaketa sakonak izan ziren: politikoak, erlijiosoak eta sozialak. Aurre-errenazimentua deritzo garai horri. Aurre-errenazimentuak erakarri zuen pentsamendu berria kultura-mugimendu bilakatu zen: humanismoa. Geroago, XV. eta XVI. mendeetan, aldaketok Europan hedatu ziren.




Errenazimentua garai erabakigarria izan da gizakiaren historian, orduantxe eman baitzioten gizakiari garrantzia, eta baita gizakiaren gaitasunei ere. Erdi Aroan, fedeak ematen zituen misterioak azaltzeko argibideak; Aurre-errenazimentuan, aldiz, arrazoiak. Mundua ez zen sufritzeko, baizik eta ezagutzak garatzeko eta gozatzeko.

Errenazimentu izena klasiko grekolatindarrenaganako interesetik dator, eta, esan dugun bezala, XV. eta XVI. mendeetan hedatu zen Europan zehar. Horretarako, ezinbestekoa izan zen Aurre-errenazimentuko hiru idazleren lana: Dante (XIII.-XIV. mendea), Petrarka (XIV. mendea) eta Boccaccio (XIV. mendea). Handik aurrera, idazleen eredu izan ziren italiarrak Europan.

Lirika

Humanismoak klasiko greziarrak eta latindarrak berreskuratu ez ezik, mitologia ere bereganatu zuen. Hala, Danteren formakuntza humanistikoa ageria da mitologia klasikoko pertsonaien etengabeko erabileran (adibidez, Minotaurora) eta kristautasunaren eta paganismoaren ezagutza (*Jainkotiar komedia*). Lan horren bidez, bere garaiko jakituriaren ikuspegia erakutsi nahi izan zuen Dantek; baina, era berean, berak zuen munduaren ikuspegia eta gizakiarena ere bai. Lana italieraz idatzita dago; hizkuntzaren ezagutza aparta zuen idazleak, erregistro ugari erabiltzen baitzituen.



Dante, hasieran, eta Petrarka, ondoren, dira Erdi Arotik Errenazimenturako pasabidea ahalbidetu zuten humanistak.

Petrarka Antzinaro klasikoko tradizioa eta kristautasuna biltzen saiatu zen. Horrez gain, klasizismoaren ezagutza sakona zuen, eta hori erraz ikusten da latinez egin zuen lan zabalean. Hala ere, italieraz idatzi zuen lan nagusia: *Canzoniere*.

Jarduerak

1. *Begi ederrenetatik* poema. *Canzoniere*, Francesco Petrarka. LU-B1, 64. orrialdea.

Zer edertasun-eredu adierazten da bakoitzean (Botticelliren Venusean eta Petrarkaren poeman)? Zertan dira berdinak?

- 1.1. Bietan ageri da mugimenduzko deskribapena? Zer deritzozu?
- 1.2. Errenazimentuan, literatura klasikoaren topikoak eta formak berreskuratu zituzten. Zer elementu grekolatindar daude batean eta bestean?
- 1.3. Zer berrikuntza dituzte testuek eta irudiek, Erdi Arokoekin konparatuz gero?
- 1.4. Bilatu olerkian Errenazimentuko literaturaren ezaugarriak azaltzen dituzten adibideak.



- 1.5. Azaldu Erdi Aroko pentsamoldearen eta Errenazimentukoaren arteko aldea. Orduan hasi zen Aro Modernoa?

2. *Ene maitearen begiak* poema. *Jainkotiar komedia*, Dante Alighieri. LU-B1, 62. orrialdea.



2.1. Gorte-maitasunean, damak jolas egiten du trobadorearen sentimenduekin. Nolakoa da maitasuna olerki horretan? Eta damaren jarrera eta balioak?

2.2. Edukian badago dolce stil nuovoren ezaugarriak?

3. Dolce stil nuovoren ondoren, ez da emakumea idealizatzen. Izan ere, Petrarkaren damak, ederra izanagatik, edertasun gizatiarra du, ez aingerutarra. Maitasuna perfekzio espirituala lortzeko bidea da oraindik ere, baina emakumea ez da jainkotiarra, baizik eta lortu ezineko izakia.

3.1. Badago loturarik Danteren maitasun-harremanen eta Petrarkaren maitasun-harremanen artean?

3.2. Petrarkaren olerkian, atal fisikoetan oinarrituta dago Lauraren edertasuna. Zer ataletan?

3.3. Zer sentiarazten dio emakumeak poetari? Nola sentiarazten du?

3.4. Olerkia sonetoa da. Zehaztu neurria eta errima.

3.5. Laukoetan, poetak gaia garatu egiten du; hirukoetan, ordea, sentimenduak adierazten ditu. Zer sentimendu? Kontuan hartu ez daudela berdin zehaztuta.

J. da Bologna-k Petrarkaren poema bat musikatu zuen 1350ean: *Non al suo amante*. Maitasun-poema laburra da. Egileari, neskabila-artzaina ikustean, desio sutsua sortzen zaio, eta une hori deskribatzen du. Italiako humanismoaren ezaugarriak ditu; kasu baterako, mitologia klasikoko Diana aipatzen du.

<https://www.youtube.com/watch?v=hVQIVxbzY3A>

Geroago, XV. mendean, Villonek desmitifikatu egin zuen emakumearen edertasuna, denboraren halabeharrezko joanak eta heriotzak haren kontra egiten dutela eta. Villon, formakuntzaz, Erdi Aroko poeta izan zen, baina Errenazimentuko ezaugarri batzuk aurreratu zituen.

XIV. eta XV. mendeetan poeta batzuek sentimenduak era originalean adierazteko forma berriak aurkitu zituzten —adibidez, Villonek—, eta, hala, Proventzako poesia zaildu eta jantzi egin zen.

4. *Urkatuen balada* olerkia, François Villon. LU-B1, 72. orrialdea.


4.1. Zein da olerkiaren gaia? Villon 1431n jaio zela jakinda, badu gai horrek loturarik poeta bizi izan zen garaiarekin?

4.2. Nori dago zuzenduta?

4.3. Bilatu Interneten Villonen biografia. Autobiografikoa izan daiteke kontatzen diguna? Zer azalpen ematen du?

Narrazioa

XIV. mendean izan zen prosaren bilakaera nagusia, eta *Dekamerona* lanik inportanteena, lorpen artistikoengatik, bai eta gerora izan zuen eraginarengatik ere. Boccacciok 1349-1351 bitartean idatzi zuen. Marko narratibo konplexua duen ipuin sorta da. Horrez gain, garaiko Florentziako giroa irudikatu zuen, eta intentzio literarioa eta artistikoa nabaria da obran. *Dekamerona*, Erdi Aroko narrazio laburrak gaindituta, XVI. eta XVII. mendeetan Europan arrakastatsua izan zen *novella* (nobela laburra) azpigenerearen eredu bilakatu zen narrazioaren konplexutasunari esker, baita borondate sortaile eta artistikoari esker ere. Izan ere, oso landua da.



Estiloari

dagokionez, hauexek ditu ezaugarri nagusiak: ironia, umore fina, pertsonaiak eta egoerak irudikatzeko gaitasun aparta eta, amaitzeko, erotismoa gobernatzeko abilezia.



Bestalde, gaiak askotarikoak badira ere, batzuk behin eta berriz errepikatzen dira, hala nola nahiak lortzeko buruargitasuna, hitzaren indarra, Elizaren kontrako kritika, maitasunaren zein *carpe diem* topikoaren aldeko gorespina, hipokrisiaren aurkako jarrera.

Azken finean, *Dekamerona* bizitzari eta gaztaroari eginiko kantu pozgarria da, helburu bakarra entretenitzea duena, ez irakastea. Horrexegatik erabiltzen ditu ironia eta umorea.

Emakumeari zuzenduta dago. Hain zuzen ere, maitasunagatik sufritzen duten emakumeen mina arintze aldera egin zuen liburua, eta, bide batez, haien egoera salatu.

Lan errealista da, gizartearen ikuspegi errealista ematen baitu, sortu berria zen burgesiarena gehienbat.

Lanak ehun narrazio ditu, baina batasuna dute, hari narratibo batek harilkatzen baititu: zazpi emakume eta hiru gizon, izurritetik iheska, hamar egunez babestu ziren Florentzian kanpo. Hamar egunean ipuin bana kontatzen dute. Gaia eguneko errege edo erreginak proposatzen du.

Jarduerak

1. *Dekamerona*, Giovanni Boccaccio. LU-B1, 73. orrialdea.

Boccacciok argi dauka bizitzari eragiten dion motorrik inportanteena maitasuna dela; maitasunaren kontra inork ezin du ezer egin. Liburuan hainbat ikuspegi erakusten ditu.

- 1.1. Nola dago adierazita maitasuna testuan? Nola ikusten du emakumea protagonistak?
- 1.2. Zure iritzian, idazlearen usteak bat egiten du protagonistarekin? Hau da, uste berekoak dira? Zergatik?
- 1.3. Bilatu Boccacciori buruzko informazioa. Gero, azaldu Dante, Petrarca eta Boccaccioren arteko loturak.
- 1.4. Zein da testuko gai nagusia? Badago azpi-gairik?
- 1.5. Narrazioaren formari dagokionez, zein da marko narratiboa? Zenbat maila daude narrazioan?
 - 1.5.1. Zenbat narratzaile daude? Zenbat hartzaile? Zer jolas dago haien artean?
 - 1.5.2. Zaldunaren ipuinak zer funtzio du Nastagioren bizitzan? Hitzak eta ekintzak, biek, dute garrantzia testuan. Zure iritzian, biak dira helburu?
 - 1.5.3. Nolakoak dira pertsonaiak, lauak ala biribilak? Zergatik? Zer azalpen eman dezakezu bi narrazioetan agertzen diren pertsonaia nagusiei buruz? Erreparatu izenei.
 - 1.5.4. Denbora eta espazioa ez dira bakarrak. Azaldu istorio bat beste baten barrenean kateatuz egoteak nola eragiten duen denboran eta espazioan.
 - 1.5.5. Nolakoa da idazleak erabili duen hizkera? Zaindua da? Justifikatu eta eman adibideak. Bide batez, aipatu baliabide literarioak.
- 1.6. *Dekameronaren* barne-egitura konplexua da, marko narratiboaren erabilera antzeman daitekeen bezala. Uztartu ipuinaren egitura identifikatutako ezaugarriak *Dekameron*a obraren egiturarekin eta egilearekin. Kokatu bere garaian, eta azaldu zer intentzio literario duen.
- 1.7. Buruargitasuna da gai nagusietakoa. Badu garrantzirik narrazioan? Zergatik hartu zuen aintzat humanismoak, zure iritzian?
- 1.8. Aipatzen diren familia-izenak benetakoak izan ziren noizbait Florentzian. Zer lortzen da benetako izenak erabilita?
- 1.9. Ironia eta umorea erabilita, emakumearen eta maitasunaren alde egiten du narrazioan. Zeri egiten dio kritika?
- 1.10. Badago gorte-maitasunaren zantzurik?




Azken ekoizpena

Danteren *Komedia jainkotiarra* eragin handia izan du literaturan eta zinean. Suspensezko edo beldurrezko film, telesail, nobela, komiki eta abarrek bertatik edan dute; hots, idazle florentziarrak sortutako kartografia fantastikotik. Eta hori gauza jakina da, ze makina bat sortzailek baliatu dituzte hark erabilitako elementuak (lekuak, zenbakien ezkutuko esanahia). Adibidez, *Seven* filmean

argi ikusten da. Badakizu Danteren obran dagoela hiltzailea nor den jakiteko gakoa?

Infernurako jaitsiera beldurrezko film askotan erabili da. Irudi horren jatorria Dantek eta Virgiliok infernuko pasabideetara egiten duten bidea da. Bilatu topiko hori film, liburu edo telesailen batean.



3. unitate didaktikoa Errenazimentutik Barrokora

Bigarren unitate didaktikoan azaldu bezala, Aurre-errenazimentua XIV. mendean abiatu zuten Italian lehen humanistek, mundu klasikoa eta haren balioak berreskuratuta. Europan, oster, XV. eta XVI. mendeetan garatu zen errenazimentua.



XVI. mendearen erdian, arazo politikoak eta erlijiosoak zirela bide, forma berriak hartzen hasi zen Errenazimentuko literatura. Orduantxe hasi zen errotzen XVII. mendeko estilo berria: barrokoa. Hauexek ditu ezaugarri nagusiak: desengainua, ezkortasuna eta Errenazimentuko idealekiko apurketa.



Dena den, bilakaera ez zen berdina izan Europako kultura guztietan. Frantzian, esaterako, XVII. mendeko literatura Errenazimentukoaren jarraipena izan zen: klasiko grekolatindarrak imitatzen zituen. Korrante horri klasizismo deritza. Beste era batera esanda, Frantziako literatura-lanen balio formalak XVI. mendekoak ziren, nahiz eta kezka erlijiosoak eta moralak Europako literatura barrokoak bezalakoak izan.




XVI. eta XVII. mendeetako ezaugarri nagusiak

Errenazimentuaren ezaugarri nagusiak hiru dira: kultura klasiko grekolatindarra berreskuratzea, gizakia munduaren gunetzat hartzea eta perfekzio gorena bilatzea.

1. Kultura klasikoa berreskuratzea. Italiar humanistak liburutegiak arakatzen ibili ziren idazle grekolatindarren testu bila, testu horiek itzulita beren ideiak zabaltzeko. Literatura klasikoa eredu izan zen errenazentistentzat, eta teknikak, generoak, gaiak eta hizkuntza ere hartu zituzten haiengandik (intelektualen artean latina izan zen hizkuntza nagusia).



2. Antropozentrismoak giza eredu berriak ekarri zituen Errenazimentuan, edonorentzat baliagarriak izan zitezkeenak. Literaturan nabarmentzekoak:
 - Politikari eredugarria: *Printzea*, Makiavelo.
 - Zaldun eredugarria: *Gorte-gizona*, Castiglione.
3. Perfekzioa lortzeko, honako ezaugarri tekniko hauek hartzen zituzten kontuan idazleek: simetria, harmonia, oreka, estiloaren ageriko sinpletasuna, egitura argia.



Amaitzeko, hona hemen Errenazimentuko literatura-gaiak:

1. Maitasuna.
2. Natura: Jainkoaren perfekzioaren sinboloa da, eta baita bakearena eta orekarena ere.
3. Mitologia klasikoa.
4. Gizakiaren jokabidea: zenbait obratan, jarrera txarrak gaitzetsi egin zituzten eta onak goretsi —adibidez, zintzotasuna, tolerantzia eta bertutea—, Errenazimentuko balioak aintzat hartuta.

Geroago, XVI. mendearen erdian, Errenazimentuko idealak kolokan jarri zituzten, katoliko eta protestante erreformatzaileen arteko lehiak (Hogeita Hamar Urteko Gerra) eta monarkia absolutuak zirela kausa. Barrokora, beraz, krisi-garaia izan zen.



Prosa

Prosazko literatura erabili zuten idazle errenazentistek eta barrokoek beren pentsamoldea eta mundua ulertzeko era adierazteko. Aldi berean, nobela garaikidearen sorrerarako bidea ireki zuten.

Humanismoa XIV. mendean sortu zen Italian —Petrarkaren eskutik gehienbat—. Erdi Aroko jarrera gaitzetsi, eta Antzinako klasikoko ereduak ezarri zuten hezkuntzan: *docere et delectare* (irakatsi eta atsegina eman). Ez hori bakarrik, politikara ere balio klasikoak eraman zituzten: zintzotasuna, bertutea, tolerantzia. Horrek, politikara balio klasikoak eramateak alegia, erlijioaren gaineko kezka eragin zuen. Gainera, orduantxe gertatu ziren



Luteroren Erreforma eta Eliza katolikoaren Kontrarreforma, eta, ondorioz, erlijioaren inguruko ardura etengabe agertu zuten humanistek.

Humanistek prosa hautatu zuten ideiak garatzeko:

XIV. mendean	Dante, Petrarka eta Boccacciok kezka hauek izan zituzten: hizkuntza eta hezkuntza.
XV. mendean	Italiako Humanismoaren urrezko aroa izan zen: Makiavelo, <i>Printzea</i> (gai politikoa); Baltasar de Castiglione, <i>Gorte-gizona</i> (Errenazimentuko gizon berriaren eredua).
XVI. mendean	Gai moralak, sozialak eta erlijiosoa nagusitu ziren: Erasmo, <i>Eromenaren laudorioa</i> ; Montaigne, <i>Saioak</i> (genero berria).

XVII. mendean, Frantziako intelektual batzuek hartu zuten humanismoaren ondarea.

Montaignek (1533-1592) bere garaiko gizakiaren kezka guztiak islatu zituen idazkietan. Batetik, zentzumenaren, arrazoimenaren eta zuzentasunaren aldeko jarrera erakutsi zuen. Bestetik, hainbat jarrera «ustel» salatu zituen: giza hipokrisia, kultura ofizialaren ezjakintasuna, egiaren izenean eginiko krimenak. Halaber, garaiko arazo larriekiko neurtaltasuna kritikatu zuen.



Gezuraren eta hipokrisiaren kontrako egiazale sutua zen, eta era askotako gaiak jorratu zituen, denak ere beti pentsamendu humanistari lotuak: adiskidetasuna, beldurra, legeari men egitea...

Irakurlea era atseguinean erakarri eta konbentzitzen ahalegindu zen. Bi helburu izan zituen, hortaz: helburu didaktikoa eta helburu literarioa.

Montaignek sortu zuen saiakera-generoa, gai jakin bati buruzko gogoetak biltzen dituen literaturaren adarra. Artearen, zientziaren, politikaren, historiaren eta pentsamenduaren gainean askatasunez hausnartzen duten saioak dira, hitz lauz eginak. Hari ugari elkartzen dituzte: elementu objektiboak eta informazio zehatza, batetik; iritziak, idazlearen bizipenak eta subjektibotasuna, bestetik. Horiek guztiak gehi literatura-baliabideak erabili zituen idazleak bere komunikazio-asmoa betetzeko.

Jarduerak

1. *Saioak*, Montaigne. LU-B1, 92. orrialdea.
 - 1.1. Nori zuzenduta dago liburua?
 - 1.2. Zein da gaia atal nagusi bakoitzean? Zer jarrera laudatzen du?



- 1.3. Zenbat atal ditu "Lehen liburua" pasarteak? Zein da tesia? Nolakoa da egitura, indukziozkoa (hasieran argudioa eta gero tesia) ala dedukziozkoa?
- 1.4. Badago subjektibotasunik testuan? Jarri adibideak.
- 1.5. Orain, erreparatu argudiatzeko erabili dituen adibideei. Idazlearen hurbilekoak dira? Zer funtzio dute?
- 1.6. Zerk egiten du testua saio? Bilatu adibideren bat.
- 1.7. Bilatu baliabideak testuan.
- 1.8. Edukiari dagokionez, lotu testuaren mezua eta humanismoaren ideiak. Zer balio eta mundu-ikuskera transmititzen dute?
- 1.9. Gizakiaren eta giza existentziaren ikuskera adierazten dira. Zein?
- 1.10. Ados zaude Montaigneren iritziarekin?

Antzerkia

Antzerkigintza Elizari eta liturgiari loturik egon zen Erdi Aroan, baina XV. mende inguruan gai ez-erlijioso edo profanoetara egin zuen jauzi, dibertitzea helburu hartuta. Halaxe sortu zituzten fartsak.

XV. eta XVI. mendeetan, humanismoaren eta errenazimentuaren eraginez, autore latindarrak berreskuratu zituzten; adibidez, Plauto eta Seneka.

XVI. mende-amaiera eta XVII. mendea dira antzerkiaren mende loriatsuak:

1. Antzerki isabeldarra (Ingalaterra): Christopher Marlowe, Ben Jonson, William Shakespeare.
2. Urrezko Mendea (Espainia): Lope de Vega, Calderón de la Barca.
3. Antzerki klasikoa (Frantzia): Corneille, Racine, Molière.



Gainera, aurrera egin zuen XVI. mendetik Italian indarrean zegoen antzerki-formak: *commedia dell'arte* delakoak. Barre eragitea zuen helburu, bat-bateko elkarrizketak zeuzkan, eta pertsonaia tipifikatuak erabiltzen zituen (arlekina, *polichinela*...).

Antzerkiaren urrezko aroa Europako kultura-mugimendu berriarekin batera garatu zen: barrokoarekin batera.

XVII. mendean, Europan, antzerkigintza izan zen generorik garatuen:




- Antzoki nazionalak sortu zituzten Ingalaterran, Frantzia eta Espainian.
- Ikuskizun jendetsuak izaten ziren, bizitza, sentimenduak eta beharrianak adierazten baitzituzten.
- Herri-antzerkiaren eta jasoaren batura ziren.
- Botereak eta monarkiak propagandarako tresna gisa erabili zuten.

Ikuskizuna hain izaten zen jendetsua, ezen arautu beharra egon zen moralitatea zaintze aldera. Hori dela eta, zehaztu egin zuten antzokietan nor norekin eseri: gizonak gizonekin, andreak andreekin. Gainera, emakumezkoei debekatu egin zieten antzezte.

Antzokietan bete beharreko arau horiek eragina izan zuten literatura-testuetan. Horregatik, klasiko grekolatindarrei jarraiki, hiru unitateen araua (denbora, espazioa, ekintza) ezarri zuten antzerkian, egiazkoagoa izango zelakoan: gehienez hamabi orduko saioa, leku berean eta ekintza bakarra.

Hiru unitateen arauak bi adar sorrarazi zituen XVII. mendean Europan:

- Hiru unitateen arauari men egiten zion antzerkigintza: Frantziako antzerki klasikoa.
- Arau hartatik urrun zegoena: Ingalaterrako eta Espainiako antzerkia.



Hauexek dira Ingalaterrako antzerkigintzaren eta Frantziakoaren arteko aldeak:

1. Gaiak: Ingalaterran, gai historikoak, emozioen gorespina eta pasioa adierazten zituzten; Frantzia, oster, eutsi egiten zieten emozioei.
2. Antzerki isabeldarrak nahastu egiten zituen generoak; Frantziako klasizismoak, aitzitik, ezin zituen komedia eta tragedia nahastu.
3. Antzerki isabeldarrak naturaz gaindiko elementuak erabiltzen zituen; Frantzia, kontrara, elementu sinesgarriak, errealistak.
4. Antzerki isabeldarrak hitz-jokoak, herri-hizkera eta hizkera kultua nahastean erabiltzen zituen; klasizismoak «dekoratibitate poetikoa» eta «gustu finaren» alde egin zuen.

Antzerki isabeldarraren loratzea Errenazimentuaren eta Barrokoaren artean izan zen —bi sasoiaren tartean, erdibidean—, eta Frantziako antzerki klasikoak, arrazionalistak, Argien Mendeari egin zion harrera XVIII. mendean. Espainiako komedia nazionalak, berriz, bete-betean egin zuen bat Barrokoarekin.



Laburtuz, XVII. mendean bi mugimendu garatu ziren Europan aldi berean: barrokoa eta klasizismoa. Batetik, testuinguru politiko eta sozial gatazkatsuak —asaldatuak— barrokoa sorrarazi zuen. Mugimendu horrek hiperboleak eta kontrasteak erabiltzeko joera zuen, eta Ingalaterran, Italian eta Espainian izan zuen arrakasta. Frantzian, aldiz, arrazonamenduan oinarritutako estetika berria sortu zen, Descartesen eraginez: klasizismoa.

Musika

Pertseo J.B. Lully musikari frantziarraren (1632-1687) lana da, eta greziar mitoan du jatorria. Bi hitzetan azalduta: *Pertseok* nahi du *Andromedak* bera maite izatea, baina *Medusa* munstroaren burua lortu behar du horretarako. Munstroaren begiradak harri bihurtzen ditu gizonak. Hala ere, *Pertseok* lortu egiten ditu helburuak: *Merkuriok* lagunduta *Medusa* hiltzea (jainkoen mezularia da *Merkurio*) eta *Andromedarekin* ezkontzea.

Lullyk paralelismo-jokoa egin zuen *Pertseo* heroiei mitikoaren eta Luis XIV.aren artean (herriari ezaguna zitzaion paralelismo hori). *Medusaren* baliokidea aliantza hirukoitza zen —Holandak, Suediak eta Germaniar Inperioak osatua—, eta erregearen kontra egiten zuen. Jupiterren semea, *Pertseo*, jainkoen babespean zegoen, *Minervak*, *Merkuriok* eta *Plutonek* maite zuten eta; era berean, Europako arbitroak, erregeak, ejertzitza eta diplomatikoak zituen babesle.



Entzungo duzun audioan (*Pertseo*, III. ekitaldia, 3. eszena, J.B. Lully, 1682), *Merkurio* *Pertseorekin* ari da hizketan, *Medusari* loa eragin dion aria kantatu ondoren. Pasarte musikatuaren estiloa errexitatiboa da, adierazkorra. *Pertseok* parte hartzen duenean, erregea da.

Beste alde batetik, operaren hastapenak 1600-1640 bitartekoak dira, Italiako gortean sortuak. Monteverdik (1567-1643) hasierako opera horien moldeak ezagutu zituen, baina gainditu egin zituen. 1607an *Orfeo* konposatu zuen.

Entzun Orfeo toccata (1607): Gonzaga sendiari eginiko ereserkia dugu, eta entzuleak erakartzeko asmoz konposatu zuen italiar artistak.

<https://www.youtube.com/watch?v=eTQAq9IWDN4>

Orfeok poza adierazten du, Euridicerekin ezkontzeko hitzemandako dago eta: Orfeo, II. ekitaldia, "Vi ricorda o boschi".

<https://www.youtube.com/watch?v=sxVcZqzJL5A>

Orfeo, II. ekitaldia, "Tu se morta": maitea hil zaiola esan diote Orfeori. Orduan, han hasi da aieneka gizagaixoa, etsipenak jota. Azpimarratzekoak dira aria honetako akorde luzeak.

https://www.youtube.com/watch?v=8ll_u870PG8


Gerrek eta goseteek iluntasunez eta ezkortasunez kutsatu zuten gizartea, eta horrexen isla izan zen Barrokoko literatura. Horiek horrela, artista barrokoek ezintasuna zuten Errenazimentuko idealak adierazteko. Natura bera ere ez zen perfekzioaren adierazle, idazlearen ezegonkortasun emozionalaren ispilu baino. Maitasunean, harremanak ezin «puruak» izan. Hala, denboraren joana, heriotza, etsipena... nagusitu ziren.



Egoera larri horretan, artista barrokoek hartzaileari eragin nahi zioten, miresmena, harridura edo izua sorrarazi. Horrexegatik zuten joera baliabide erretorikoz jositako forma zail, korapilatsu eta landuak erabiltzeko. Azken batean, originalak izan nahi zuten, eta lana berezi egiten zuten formen bila aritzen ziren. Sentimendu kontrajarriak, oreka falta eta zailtasuna ere adierazten zituzten, barrokoaren helburuak lortze aldera. Hori dela eta, sarritan azaldu zuten bizitzak eraginiko desengainua. Gai erlijiosoa ere sakon landu zuten, «Jainkoa baita salbaziorako itxaropen bakarra eta bizitzari zentzua ematen diona».

Jarduerak

1. *Uda-gau bateko ametsa*, William Shakespeare.
 - 1.1. Nola seduzitzen du Titaniak Barren? Zer argudio darabiltza?
 - 1.2. Titania mundu magiko bateko erregina da, eta Barren antzerki-lan bat prestatzen ari den artisaua. Bata fantasiako testuingurukoa da; bestea, errealitatekoa. Biek elkarri eragiten diote obra osoan. Pasarte honetan hizkuntza-baliabide baten bitartez indartzen da bi pertsonaien arteko aldea; kontraste barregarriak erabiliz, hain zuzen. Eman adibide batzuk. Zein da pertsonaien jokabidea? Nola adierazten dute?



TITANIA

Otoizten zaitut, hilkor atsegin, kanta ezazu berriro.
Belarria dut maitemindua zure kantuaren kausaz;
begia berdin gatibatua, itxuraz hain zara eder.
Eta ahalmen bortitz bikainon ahalek bortxaz nakarte
Zin egitera ikusterako zinez zaitudala maite.

BARREN

Esango nuke andrea, eskastxo duzula arrazoia horretako.
Eta, halere, egia esan, arrazoia eta amodioa aparte samar
dabiltza elkarrengandik gaur egun; are tamalgarriago,
zenbait jende prestuk ez baititu adiskidetu nahi. Tira,
baditut neure ateraldiak nik ere.

TITANIA

Eder halako burutsu zara, begi-bistan dagoenez.

BARREN

Ez hainbestean; baina burubiderik aski izatekotan baso
honetatik irteteko, badut nahikoa, horrexekin konforme naiz.

TITANIA

Otoi ez egin planik baso hau inola ere uzteko,
oihan honetan nahi eta ez baituzu egon beharko.
Izatez bainaiz izpiritu bat arrunten gainetik goia.
Uda oraindik zerbitzari dut, ene mendeko sasoia;
eta nola nik maite zaitudan, ez egin hemendik hanka.
Maitagarriak jarriko ditut zure zerbitzura, eta
zuretzat dute bitxi ederrik ekarriko itsaspetik,
eta kantatu lore gaineen zu goxo lo zaudelarik.
Kenduko dizut hilkor baldarron astuntasuna bet-betan,
izpiritu huts izan zaitezen airezkook garen gisan.
Ilarlore, Sits, Amaraun eta Ziapeale, zatozte!

Shakespeare

Uda-gau bateko ametsa

Itzulpena: Juan Garzia

2. *Tartufo*, Molière. LU-B1, 118. orrialdea.
 - 2.1. Bilatu obraren argumentua eta laburtu.
 - 2.2. *Tartufo* Frantziako klasizismoari dagokio. Bilatu literatura-joera horren ezaugarri formalak eta linguistikoak.
 - 2.3. Orgoni buruz, nolako irudia ematen digu? Benetan ari da Orgon? Eta Elmira?
 - 2.4. Tartufoi buruz, bi iritzi daude. Zein? Noren iritziak dira?
 - 2.5. Testuan umorea sorrarazten duten baliabideak daude: ironia, kontrastea. Bilatu adibideak. Testuko umore hori unibertsala da, modernoa? Zergatik?
 - 2.6. Non ikusten da testuan Tartufo hipokrita dela?
 - 2.7. Zer salatu nahi du Molièrek obra honen bidez?



Azken ekoizpena (hiru hauetatik, bat egin)

1. Idatzi gutuna Montaigneri. Gutunean, berak idatzitakoaz, testuaren balioaz... zer iritzi duzun azaldu behar diozu (LU-B1, 92. orrialdea). Nahi izanez gero, jokatu haren laguna edo senitartekoa izango bazina bezala.

Shakespearek sortutako pertsonaiak unibertsalak dira —hau da, ezaugarri jakin batzuk dituzte—, eta ezaugarri horiek, literaturaren



historian, profil zehatzen ereduak dira. Aukeratu pertsonaia horietako bat, eta azaldu testuingurua, obran duen funtzioa, baikorra ala ezkorra den, hizkuntza eta erabilitako baliabideak. Jarri adibideak, eta azaldu hizkuntza-baliabideak barrokoak diren ala ez. Gero, antzeztu pertsonaia horren pasarte

bat, eta justifikatu zergatik aukeratu duzun pasarte hori.

2. Aukeratu Shakespeareren olerki bat, eta bihurtu narrazio.
3. Asmatu gutun bat Hamleten larruan jarrita. Gaur egungo Europako monarkiaren bateko errege edo erreginaren bati idatzi behar diozu.

Bibliografia

ALDEKOA, I.; GILLENIA, I.; GURRUTXAGA, A.; OLAZIREGI, M.J.: *Literatura Unibertsala. Batxilergoa 1*, Erein, Donostia, 2016.

ALIJUSTES BORDAGARAI, K.: *Euskal Herriko mitologiaren jainkoak eta jeinuak*, Amaroa, Gasteiz, 2014.

ANGELIDOU, M.: *Greziar mitoak* (egokitzapena: TRISTÁN, M.), Vicens Vives, Espainia, 2013.

APULEIO, L.: *Urrezko astoa*, Ibaizabal, Euba.

ARRIAGA, J.L.: *Euskal Mitologia*, Gero Mensajero, Bilbo, 1984.

ATXAGA, B.: *Obabakoak*, Erein, Donostia, 1988.

CASSANY, D.; LUNA, M.; SANZ, G.: *Enseñar lengua*, Graó, Bartzelona, 2008.

GONZÁLEZ-SERNA SÁNCHEZ, J.M.; LLONA COLINO, M.C.: *Literatura Universal. Bachillerato 1* (teoría y práctica), Edelvives, Zaragoza, 2015.

HERNANDEZ ABAITUA, M.: *Narrazio tailerra*, Erein, Donostia, 2011.

IGERABIDE, J.K.: *Metamorfosiak. Ovidioren Metamorfosien bertsioa*, Erein, Donostia, 2001.

IGERABIDE, J.K.: *Ulises. Homeroren Odisearen bertsioa*, Erein, Donostia, 2000.

IRIONDO, S.: *Literatura unibertsala: Grezia klasikoa eta gu*, IRALE.

LOBATO MORCHÓN, R.; LAHERA FORTEZA, A.: *Literatura Universal. Bachillerato*. Oxford educación, Madril, 2015.

MARTINEZ de LEZEA, T.; LANDA, J.L.: *Euskal Herriko leiendak*, Erein, Donostia, 2002.

MOLIÈRE: *Tartufo* (itzulpena: ELEXPURU, J.M.), Alberdania.

MONTAIGNE, M.: *Los ensayos* (según la edición de 1595 de Marie de Gournay), Acantilado, Bartzelona, 2007.

PAJARES ALONSO, R.L.: *Historia de la música en 6 bloques. Bloque 2. Géneros musicales*, Visión libros.

SARRIONANDIA, J.: *Izuen gordeleketan barrena*, BAK, 1981.

ZENBAITEN ARTEAN: *Literatura Universal. Bachillerato*, Casals, Bartzelona, 2013.

ZENBAITEN ARTEAN: *Literatura Universal. Bachillerato 1*, Santillana, Madril, 2015.

<http://www.armiarma.eus/emailuak/izuen/>

http://www.vicensvives.com/vvweb/_pdf/Greziar-Mitoak-01.pdf

<http://image.slidesharecdn.com/mithologiaclasicaeus-090325072935-phpapp01/95/mitologia-klasikoa-euskaraz-275-728.jpg?cb=1237966355>

<http://www.aittu.net/>

<http://www.nachoares.com/articulos/el-libro-de-los-muertos/>

<http://www.uv.es/dep230/revista/PDF627.pdf>

<http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=26>

<http://www.proyectopv.org/2-verdad/sansonydalila.htm>

[https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/c/c3/Chaos Monster and Sun God.png](https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/c/c3/Chaos_Monster_and_Sun_God.png)

<http://k40.kn3.net/taringa/1/6/4/3/5/0/18/azkspa/BDB.jpg?7905>

http://ayoungknighttravel.blogspot.com.es/2011/06/nastagio-degli-onesti-de-boccaccio_28.html

<https://ciervalengua.files.wordpress.com/2011/09/bocaccio-el-decamerc3b3n-y-comentario-resuelto.pdf>

<http://www.amaroa.com/>

<http://armiarma.eus/liburu-e/>

<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/viewFile/8689/7857>

<http://www.armiarma.eus/emailuak/pamiela/kavafis.htm>

<http://estelaagudelo.blogspot.com.es/2011/09/evolucion-del-libro-ilustrado-i.html>

http://www.eizie.eus/uda_ametsa/UGBA2014/ugbaosoa.pdf

www.susa-literatura.eus

<http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=26>

http://www.eizie.eus/uda_ametsa/UGBA2014/ugbaosoa.pdf

http://www.berria.eus/paperekoa/1483/038/001/2011-10-19/barnea_zaindu_beharraz.htm

<http://dipc.ehu.es/etxenike/admin/documentos/archivos/prensa/berria19oct2011.pdf>

<http://circulodepoesia.com>

<http://euskonews.com/0487zbk/elkar.es.html>

<https://upload.wikimedia.org/>

<http://www.almargen.com.ar/sitio/seccion/cultura/minotauro/>

<https://www.ucm.es/data/cont/docs/106-2016-05-03-7.lrune.pdf>

<http://antesdelogos.blogspot.com.es/search/label/CRIATURAS%20MITOL%C3%93GICAS%20DE%20GRECIA%20Y%20ROMA>

<https://books.google.es/books>

<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/inbentarioa/eranskinak.pdf>